

## Kultura

Vanesa Fernandez: "Erronka handia da Zinebi bezalako nazioarteko jaialdi bat zuzentzea, baina lan egiteko gogotsu nago". > 11



Hurrengo alea  
irailaren 1ean  
kaleratuko dugu

Ondo pasa  
oporretan!

**JAIK!**

**GARAI  
MAÑARIA  
MALLABIA**



# Justiziaren ordua

80 urte pasatu behar izan dira Durangoko bonbardaketaren erantzuleak nortzuk diren ezagutu eta auzibidea hasteko. Isiltasuna hautsi eta memoria berreskuratzeko lan handia egin dute azken urteetan Gerediaga eta Durango 1936 elkarteek. Ikerketa eginda, udalak kereila aurkeztu du herriko epaitegian. Justiziak du hitza. > 2-3



◆◆◆ Ondo pasa oporretan! ◆◆◆





Barrenkalea, 28 | 946 817 918 | [www.naturalkibelardenda.es](http://www.naturalkibelardenda.es)

- Durango > 5**  
Geltoki zaharra ez botatzeko sinadura bilketa 'change.org'-en

---

- Zornotza > 6**  
Eraso sexistak gaitzesteko kalejira feministara deitu dute

---

- Berriz > 6**  
Iturriza kalea urbanizatzeari ekingo diote datozen egunetan

---

- Otxandio > 8**  
Elizako ataria eta polikromiak berrizteko diru-bilketa, abian

## Herririk herri

# Kereilaren bidez, bonbardaketaren egia jakiteko garaia heldu da Durangora

Durango eta Elorrio bonbardatu zituzten 46 pilotu italiarren aurkako kereila sartu dute epaitegian

**DURANGO** Markel Onaindia  
 “Goiz baten Tabirak, esnatzean, txori beltzak zituan ortzian” idatzi zuen Telesforo Monzon poeta eta politikariak 1947an, Durangoko bonbardaketari eskaini zitzaion euskarazko lehen olerkian. Txori beltzak, edo, hobe esanda, saguzarrak eta labezomorroak. Durango eta Elorrio bonbardatzeko hegazkinak *Pipistrelli* –saguzarra italieraz– eta *La Cucaracha* ezizenekin bataiatu zituzten. Bonbaketariak ziren lehenak, ehiza-hegazkinak bigarrenak. Barruan, Italiako Aviazione Legionaria-ko 46 pilotu, kolpistei eta naziei mesede egiteko zibilen aurkako sarraski ilegala burutu zutenak. 336 pertsona hil zituzten Durangon, eta 7 Elorrrion. Desagertu eta ahaztuko ez den zauri kolektibo hori osatzen hasteko, kereila kriminala aurkeztu du Durangoko Udalak epaitegian –PP ez beste alderdi guztiekin–, egia merezi duen herriaren izenean. “Garaia da egia bere osotasunean jakin ahal izateko”, adierazi zuen Aitziber Irigoras alkateak.



**“Irailtik aurrera lanean hasiko gara Franquesagaz”**

URTZI ARMENDARIZ

### Piloturen bat bizirik?

80 urteko isiltasunaren ostean, justiziaren ordua heldu da, eta Franquesaren esanetan, salutatuko pilotu italiarren bat bizirik ba ote dagoen ikertzeko balio beharko du ikerketak. 46 pilotuen zerrendak Gerediaga elkarte-ko Jon Irazabal ikerlariak topatu zituen Erromako (Italia) abiazio militarren estatu-artziboan; izan ere, bera da kereilarako datuak ikertu dituen,

lean zirrikitu bat topatu dute pilotu italiarrekin. Bartzelonan bide bera erabili dute, eta hango epaitegiak tramitera onartu du kereila. Hala ere, salaketa jarri dutenek lehen pauso lez ikusten dute. Durango 1936 elkarte-ko Andoni Barreñaren ustez, “gizateriaren aurkako krimena” izan zen, eta, horregatik, “justiziak ikertzen jarraitu behar luke”. Iritzi berekoa da Anais Franquesa ere, Bartzelonako kereila jarri ostean Durangokoaren kargu egin den abokatu katalana. “Gizateriaren aurkako krimena denez, ez da preskribatzen”, esan zuen amnistiari balioa kenduz. Espainiarrak epaitzeko beste bide bat zabalik dago Argentinan, Maria Servini epailearen eskutik.



Hainbat politikarik eta herritarrek egin zuten bat kereilagaz martitzenean. Udaletxean eman zuten prentsurrekoa.

udalaren eskariz. Bonbardaketari buruz dakiguna ere berari esker da, hein batean. Gerediagak lan zabala egin du ikertzen eta memoria bizirik mantentzen. “Duela 30 urte lehen oroi-ekitaldia egin genuenean, askok zorotzat hartu gintuzten”, adierazi zuen Irazabalek.

Durango 1936 elkarteak proposatu zuen kereila sartzea, eta hainbat taldek osatutako Martxoak 31 batzordean onartu zuten udala izatea horren buru. Etorkizunean herriko elkarte guztiei kereilara batzeko gonbitea egin die Durango 1936k. Bide bat hasi da, eta horrek segida izango du asteburuan bonbardaketaren 81. urtemuga gogoratuko duten Otxandion ere. “Gure betebeharra da, eta irailtik aurrera lanean hasiko gara Franquesagaz. Hori bizi zuten herritarrek Otxandion zer gertatu zen jakin dadila eskatzen digute”, Urtzi Armendariz alkatearen esanetan.

**“Bonbardaketa egin zutenek, pagatu dezatela”**

Rosario Mendibe Atxurak 8 urte zituen 1937an



**anboto**  
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta - Bizkaia  
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523  
Publizitatea: 946 217 902  
publi@anboto.org

2017ko uztailearen 21a  
14. urtea - 686. alea

Lege gordailua:  
BI-2268/01  
ISSN:  
1578-7028  
Tirada:  
11.500 ale



Zuzendaria: Jone Guenetxea  
Arrinda. Erredakzio burua: Markel Onaindia Txabarri. Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta. Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri. Publizitatea: Itxaso Martínez de Arenaza Yarza eta Nagore Txintxurreta Isasi. Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Itsaso Esteban Urriaga, Joseba Derteano Bilbao, Markel Onaindia Txabarri, eta Maialen Zuazubiskar Gallastegi. Maketazioa: Eider Alberdi Bengoa. Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.

LAGUNTZAILEAK

**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



**EUSKO JAURLARITZA**

**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



**Lekuko izan zinen, eta kereilaren ekitaldian parte hartu duzu. Zer sentazio duzu?**  
Denentzako poza ez da izango, baina egin zutenek, pagatu dezatela. Min handia egin dute.

**Zelan gogoratzen duzu?**  
Iurretan bizi ginen. Orduan ez zegoen etxe alturik, kanpandorreak ikusten ziren. Etxe ondoko estarta batean nengoan, aitagaz eta auzoko beste bigaz. Urkiolarantz begira egoten ginen beti, abioiak Mañaritik Gasteizerantz joaten ziren-eta. Halako batean, “badatozek” esan zuten euren artean, papearak botatzen hasi zirelakoan. Baina dena dardaraka hasi zen. Zer zen hura! Gran Hotel inguruan, jauregi batean, jatekoa hartzeko txartel bat ematen zizuten. Bila joatean, Andra Marian dena zen hondakina. Dardara bat sartu zitzaidan... Inork ez du merezi

guk pasatu genuena. Gainera, “vosotros, los rojos, habéis bombardeado” esaten ziguten gero. Zortzi urteagaz zer genekien, bada, zer ziren bonbak?

**40 urteko diktadura etorri zen gero.**  
Frankistak apirilaren 28an sartu ziren Durangon, eta guk 27an egin genuen alde Santanderrera. Arriandiraino oinez joan ginen, nire hiru neba-arreba txikiak ere bai. Aitak norbaitegaz adostua zuen Zornotzaraino kamioi batean eramateko. Jendeak bendak zituen ipinita; gero jakin nuen Gernikako bonbardaketatik ihesi zetozela. Durangora bueltan, Batzokiko ikastolan euskaraz ikasi genuen, eta gero, herriko eskolan zigortu egiten gintuzten euskaraz aritzeagatik. Barre egiten ziguten. *Cara al sol* abestu ezean ez ziguten jaten ematen.



### **Gerediaga elkarteko Jon Irazabalek hainbat datu bildu ditu ikerketan:**

- Madrilgo Archivo General e Historico del Aire eta Erromako Archivo Stato Maggiore Aeronautica Militare Italiana artxiboetan ikertu du.
- Martxoaren 31ko eta apirilaren 2 eta 4ko bonbardaketetan bomba su-eragileak ere erabili ziren. Beraz, Gernika esperimendu beraren bigarren fasea izan zen. Hitlerrek Mundu Gerrari begira erabili gura izan zuen eraso, bere gaitasuna erakusteko. Frankistek herria beldurtu gura zuten, erresistentzia menderatzeko.

Compito: Bombardare reiteratamente Durango ed Elorrio nella giornata del 31/3/37 - allo scopo di distruggere i depositi e colpire la truppa pre-concetto d'azione: Azione con scorta, di sorpresa. (senti negli abitati).  
L'azione sarà ripetuta al più presto sulle zone non colpite dal primo tiro.  
Ripartizione dei compiti 213ª Squadriglia Elorrio  
214ª Squadriglia Durango  
La Sezione B.T. completerà le pattuglie.

Bonbardaketaren agindu-orriaren irudia.

Bonbak bota zituztenak.

### **OPERAZIOA**

#### **M-31 Goiza**

213 eskuadrilako bost bonbaketari Elorriora joan ziren. 214 eskuadrilako hiru bonbaketari Durangora. Bederatzina ehiza-hegazkin laguntzaile zituzten, herritarrak metrailatzen.

214 eskuadrilak 3.240 bomba jaurti zituen 7 minutuan Durangon. Hegazkin bakoitzak 50 kiloko 20 bomba eta 20 kiloko 4 bomba su-eragile.

#### **M-31 Arratsaldea.**

213 eskuadrilak Durangoko tren geltokia bonbardatu zuen.

### **ARDURADUNAK**

#### **Planifikazio militarren arduradunak**

Juan Vigon teniente koronela eta Alfredo Kindelán jenerala.

#### **Laguntzaileak**

Condor legio alemaniarreko Hugo Sperrle eta Wolfram Von Richtofen.

#### **Baimena eman zutenak**

Franco, Mola, Vincenzo Velardi jenerala eta Aviazione Legionariako komandanteburua.

#### **Egileak**

Ferdinando Raffaelik sinatu zuen agindua, eta bera izan zen operazioko burua. Guztira, 46 pilotu italiarrek parte hartu zuten, era ilegal eta boluntarioan. Francok kondekoratu egin zituen.

### **ONDORIOAK**

**Durangoko 229 eraikin kaltetuta.**

**Ehunka zauritu.**

**Ehunka iheslari.**

**336 hildako Durangon, 7 Elorri.**

**Smurfit Kappa**  
Central Forestal

**50 urte**  
EUSKADIKO  
PINUDIAK  
ZAINTZEN

Baserritarren eta Euskal Herriko basoen zerbitzura

Etxebarrieta auzoa - 48215 IURRETA  
Tel.: 946 205 187 - Faxes: 946 205 194

# Herritarrenganako zubia zabaltzeko pauso garrantzitsua eman du Durangoko Udalak

Parte-hartzearen inguruko ordenantza onartu dute osoko bilkuran; orain, garatu egin beharko dute



Herritarren eskaera eta kexei 7 egunen buruan eman beharko diete hasierako erantzuna.

**DURANGO** Markel Onaindia. Modan dagoen gaia da partaidetza eta gardentasunarena, baina, errealitatean, instituzioek zeregin ugari dute oraindik. Herritar askok urrun eta zurruntzen dituzte. Durangoko Udalak pauso garrantzitsu bat eman du zubi hori zabaltzeko, parte-hartzearen inguruko ordenantza onartuta. Pauso hori handia izango da araututakoa eguneroko jardunean bete-

tzen bada. Herritarren eskaerei egun gutxira erantzungo die udalak; mozioak aurkeztu eta defendatu ahalko dira alderdien bitartekari-tzarik barik; arduradunen agerraldiak eskatu ahalko dituzte; batzordeetan parte hartu...

Durangon, sarritan, Alde Zaharreko DAZ auzo elkartea

izan da udalak entzungor egin diela salatu duenetako bat. Po-



**“Oso interesgarri ikusten dugu, garatzen bada”**

JOSE MARI ARRILLAGA

zik dago Jose Mari Arrillaga auzokidea, baina tentuz itxaroten

dio garapenari. “Benetan garatzen bada, bere esentzia irizpide onez burutzen bada, oso interesgarri ikusten dugu. Baina letra txikia irakurtzeko zain gaude”, dio DAZeko kideak.

## “Jauzia”

EH Bilduk proposatu zuen ordenantza duela urte eta erdi, elkarten iritziak jasota. Horien sententzia azaldu du Aritz Bravo zinegotziak. “Batzarrak egin izan ditugunean, jendeak esan digu idatzi bat sartu eta ez zutela erantzunik jasotzen; norabide bakarrek hartu-eman izan dute. Oso positiboa ikusi dute ordenantza”.

Zirriborro horri ekarpenak egin dizkiote udalean, eta, azkenean, ia aho batez onartu dute, PPrentz abstentzioa kenduta. “Udal askoz parte-hartzaileago batera jauzia” egingo dela nabarmendu du Harri Guridi Parte-hartze Batzordeko presidentek (EAJ). Julian Riosen (Herriaren Eskubidea) iritziz, ordenantza “tresna bat da, ez helburua”. Horregatik, sustatzeko beharra egongo da. Pilar Rios alkateordearen (PSE-EE) arabera, udalak “gardentasunagaz konpromisoa” izatearen erakusle da ordenantza.

## EKINTZA ESANGURATSUAK

### GARDENTASUNA

- Zinegotzien datu ekonomikoak publikatu.
- Kontratu eta hitzarmenak publikatu.
- Aurrekontuak ulerkor.
- Eskaerei erantzuna 7 egunetara.

### PARTAIDETZA TRESNAK

- Entzutegi publikoa eskatu ahalko dute elkarteek eta herritarrek (%2k sinatuta)
- Herri ekimena. 16 urtetik gorakoek %10ek eskatuta.
- Mozioak zuzenean aurkeztea herritar eta elkarteek.
- Batzordeetan entzule lez parte hartu ahalko da.

### ELKARTEGINTZA

- Elkarten eraketa bultzatu.
- Elkarten udal fitxategia sortu.

### PORTE-HARTZE ORGANOAK

- Udal Foro Soziala, urtean behin batuko dena.
- Auzoetako prozesu komunitarioak.
- Eztabaida foroak.

### PORTE-HARTZE AGENDA

- Aurrekontu parte-hartzaileen araua 6 hileko epean sortu.
- Planak urte birik behin.

# Mugikortasun Asterako motorrak berotzen

Irailaren 15etik 22ra garatuko dira ekintzak

## DURANGO M.O.

Irailaren 15etik 22ra bitartean Mugikortasun Astearen beste edizio bat hartuko du Durangok, eta dagoeneko badabilta motorrak berotzen. Eguazteen egitaraua aurkeztu zuten

Aitziber Irigoras alkateak eta Tazebaez berrikuntza taldeko Juan Zubiaurre antolatzaileak.

Lehen egunean Bizikletarte arte lehiaketako sari banaketa egingo dute. Abuztuaren 31ra arte aurkeztu ahal dira mugikortasunaz kontzientziatzea

helburu duten lanak, eta 700 euro egongo dira jokoan. Irailaren 16a izango da egitarauko egun handietakoa: Autorik Gabeko Eguna ospatuko dute Ezkurdin. Ginkanak, bizikleta makinak, martxa eta spinning maratona iragarri dituzte, besteak beste.

Irigorasek adierazi du Durango “erreferentea” dela mugikortasun eta jasagarritasun politketan, eta konpromiso horren baitan kokatu du Mugikortasun Astea.



Tazebaez taldeak antolatu du egitaraua.

**hitz** liburudenda

**#gomendioak**

artekalea 23, durango  
946 810 776  
info@hitzliburudenda.com

HELDUEKINZAT  
GERRAK EZ DU  
EMAKUME AURPEGIRIK  
Svetlana Aleksievitz  
2017

UME ETA GAZTEENTZAT  
HEGOAK ASTINDUZ  
Galandon & Momin  
2017

MUSIKA  
ERTZETATIK  
Huntza  
2016

Bulegorako  
zigiluak  
Fotolitoak

**Betikoak**  
flexografia

946 202 241

Bixente Kapanaga, 9  
48215 IURRETA

Eraikuntzarako materiala

**MACOBER**

Zeramika eta gresa

Eitua industriagunea, 66 BERRIZ  
Tel.: 946 827 890 macober@movistar.es

## Geltoki zaharra ez botatzeko eskaera 'change.org'-en

**DURANGO** M.O.

Eusko Trenbide Sareak iragarri lez, 8 bat hile barru botako dute Durangoko tren geltoki zaharra, EH Bilduk azken udalbatzarrean eraikina mantentzearen alde aurkeztutako mozioak ez baitu aurrera egin. Herritar talde batek sinadura bilketa hasi du *change.org* atarian, prozesua eten eta herritarrei hitza ematea eskatzeko.

Eraikinaren balio historikoaz eztabaidatu dute ple-noan. EH Bildu eta Herriaren Eskubidearen ustez, badu balio hori; bere funtzioaz aparte, Durangoko langile mugimenduarentzat esanguratsua dela uste dute, bertan hasi baitzen UGT sindikatua egituratzen. Aurrera begira eraikinari emango lioketen funtzioari lotuta, memoria historikoa plazaratzeko leku egokia izan litekeela dio Herriaren Eskubideak. Bestalde, egokitzea proposatu du EH Bilduk, herritarrek erabiltzeko. Baina udal gobernu taldeak ez dio balio berezirik ematen, eta uste du ez duela merezi obra handi bat egiteak —eraikina utzita dago 2012an zarratu zenetik—. Herrian beste eraikin historiko batzuk ere erabilgarri dadelad adierazi dute.

## Juan Itziarko auzoko jaiak indarberrituta abiatuko dituzte

**DURANGO** J.G.

Santi Sapuherri auzo elkar-teak Juan Itziarko jaiak antolatu ditu uztailearen 22 eta 23ra-ko. Urtebeteko geldituenearen ondoren, jaiak indarberrituta datoz. Antolatzaileen arabera, aurtengo programan aurreko urteetan arrakasta izan duten jarduerak izango dira, auzokideek elkarteko kideei hala eskatuta. “Jarduera tradizionalak dituen jaiak izango dira, baina antolakuntza aldatzagaz.

Bihar abiatuko dituzte jaiak, 12:00etan, pregoiagaz eta txupinazoagaz. Txosna ordu horretan zabalduko dute, eta 02:00ak arte egongo da zabalik. Ondoren, igel txapelketa antolatuko dute. Arratsaldean, berriz, tute txapelketa izango da. Umeei zuzenduta, jolasak eta musika prestatuko dituzte. Iluntzean, auzokideak mahai bueltan batuko dira afari herrikoian. Bakoitzak bere janaria eraman beharko du, eta antolatzaileek jarriko dituzte mahaia. Eguna dantzan amaitzeko, Xabi Rain DJ bilbotarrak jarriko du musika.

Domekan, trikitilariak alaituko dute giroa. Mezaren ondoren, auzo bazkarian batuko dira.



Askatasun etorbidearen atzealdean egingo dute argiztapena hobetzeko lanetako bat.

## Durangoko hiru kale hobeto argituko dituzte, emakumeei babes emateko

150.000 euro erabiliko dituzte parekidetasuna eta segurtasuna sustatzeko

**DURANGO** Markel Onaindia

Parekidetasuna sustatzeko eta emakumeen segurtasuna indartzeko proiektuetarako, 150.000 euro erabiliko ditu Durangoko Udalak. Horien artean, hainbat kaletako argiztapena hobetuko du, emakumeei babes emateko. Izan ere, leku batzuk puntu beltz moduan identifikatuta dituzte. Askatasun etorbidearen atzealdea —tren geltokirantz—, Oñiturrri eta Komentukalea izango dira argituko diren kaleak.

Gai horregaz lotuta, puntu beltzak diseinatzeko ikastaro

bat eskainiko diete emakume arkitektoei. Gainera, genero ikuspegiko ideiekin jarraituta, emakumeen presentzia handitu gura dute aurkezpen kulturaletan eta eztabaida foroetan. Emakume migranteekin ere jabetasuna saio bereziak egingo dituzte.

Proiektu horiek guztiak kreditu aldaketa bidez onartu ditu udalbatzarrak. 2017ko aurrekontua osatzeko adostasunik ez dago oraindik udalean, eta bide hori erabili behar izan dute. Hain zuzen, “eztabaidatu

bako gaiak” bilkurara ekartzea leporatu dio Herriaren Eskubideak EAJ eta PSE-EEren udal gobernuari. Euren aurrekontu negoziazioa herritarren partaidetza eskatzeagatik eten zutela kritikatu du Jorge Varela. “Ez dugu partaidetzarik bako aurrekonturik ulertzen”.

Bestalde, EH Bilduk ohartarazi du udalak ez duela eskatu ikastetxe publikoetan obrak egiteko diru-laguntza. Beraz, Jaurlaritzak ipintzen duen %60 udalak ipiniko beharko du, obrarik egin behar bada.



Aldatsekuan dago Jubilatuen Etxeko taberna.

## Jubilatuen taberna kudeatzeko aukera

Hilean 500 euro eskainiko dizkiote kudeatzaileari

**ELORRIO** M.Z.

Aurreko lizitazioa hutsik geratu ostean, Elorrioko Udalak, berriz ere, Aldatsekua jauregian dagoen Jubilatuen Etxeko taberna kudeatzeko aukera eskaini du. Oraingo honetan, kudea-

keta lanetan dabilenari hilean 500 euro ordainduko dizkiotela jakitera eman du prentsa ohar bidez udalak.

Gainera, zerbitzua hobetzeko asmoz, tabernan hobekuntzak egin eta terraza bat egokituko

dutela adierazi dute udaletik. Horrez gain, tabernaren ordu-tegia 14:30etik 20:00etara izango dela jakitera eman dute.

Bestalde, taberna kudeatzeko interesa dutenek galderaren bat izanez gero edo eraikina eza-gutu gura izanez gero, *hirigintza@elorrio.eus* helbidera idatzi dezakete.

Jubilatuen etxeko taberna kudeatu gura duenak abuztuaren 16ra arte izango du aukera bere eskaera udaletxean aurkezteko.

**Musikaire** 2017 | UDAKO JAIALDIAK

21 JORGE PARDO 22:30 LARIZ JAUREGIA  
 22 BA CISSOKO 22:30 LARIZ JAUREGIA  
 23 MIKROANTZERKIA 19:00 CASA JARA JAUREGIA  
 28 RUPER ORDORIKA 22:30 TOLA JAUREGIA  
 29 ANTONIO LIZANA 22:30 TOLA JAUREGIA  
 30 KHAMI 19:00 TOLA JAUREGIA

ARRIOLA | BERRIO | LORRION |

bbk | EUSKAL |

katerin ardoak  
 iñaki uribe  
 saltsan

Eguneko menuak - Asteburuetakoko menu bereziak  
 Delicatessena - Ardotegia

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com

# Erasoak amaitzea “denen ardura” dela gogoratuko dute kalejiran

Zornotzan eta Durangon emakumeenganako eraso bana gertatu dira



Zornotzan kontzentrazio jendetsua egin zuten erasoak gaitzesteko.

**DURANGALDEA** J. Derteano Zornotzako Emakumeen Taldeak kalejira feminista antolatu du zapatuan, 24:00etan, Zelaie-ta parkeko kioskotik hasita. *Kaleak eta gauak gureak dira! Eraso sexistarik ez!* leloak oraindino esangura handiagoa hartu du Karmen jaietan eraso sexistari-  
ta bat gertatu delako. “Eraso hauek guztiak amaitzea guztien ardura da, guzti-guztiona”, gogoratu du emakumeen taldeko Amaia Fernandezek eta herritar denei kalejiran parte hartze-ko deia egin die.

Joan zen zapatuan, Zornotzako jaietako lehenengo egunean,

gertatu zen eraso. Biharamunean, udalak deituta, kontzentrazio jendetsua egin zuten udal-letxe pareko plazan, gertaera salatze-ko. Udalak babes-erakutsi dio eraso jasan zuen adin txikikoari, eta udalaren baliabideak eskaini dizkio. Zornotzako Emakumeen Taldeak helarazi-

tako oharrean mota horretako jarrerarik “ez dutela onartuko” adierazi dute. “Erasotzaileen aurrean izango gaituztela eta jai-guneetatik kanporatuak izango direla aho batez ohartarazten diegu”. Erasoak jasan zuen emakumeak salaketa jarri duela informatu dute, eta salaketa horregaz “bat egiten” dutela. “Eraso hau emakume guztien aurkako eraso da. Eta eraso bakoitzari erantzun kolektiboa emango diogu”, gehitu dute.

Aurten bigarrenegun egingo dute kalejira feminista. Parke-  
tik irtenda, Luis Urrengoetxea kalea zeharkatu, Euskal Herria enparantzari buelta eman, eta Gudari kaletik txosnetaraino bidea egingo dute. Burua estaltzeko zapiak eramateko deia egin dute. “Protesta egiteari beldurra izatea emakumeoi erakutsi diguten zerbait da. Beraz, estaltzeko zapien esanahia emakumeok beldur horiek ezabatzen ditugula eta kolektiboki erantzuten dugula da”, argitu dute.

## Durangoko erasoak

Durangon joan zen domekan gertatu zen eraso sexistak, udalak informatu zuenez. Emakume bati bikotekide ohiak egin zion eraso, eta birritan, gainera. Horren aurrean, udalak indarkeria matxistaren aurkako protokoloa aktibatu zuen. Egunean elkarretaratzea egin zuten erasoak gaitzesteko.

## Bost egun greban eman dituzte Finantzautoko langileek

### ZORNOTZA J.D.

Barloworld Finantzautoko multinazionalak estatuko zazpi zentro itxi eta 192 langile kaleratu gura ditu. Zornotzako ez dago zentro horien artean, baina bederatzita langile kaleratzeko arriskuan egon daitezkeela argitu du CCOO sindikatuek.

Zornotzako zentroak 55 langile ditu. Astelehenean hasi zuten greba eta barikuan amaituko dute. Estatuko gainerako zentro askotan ere berdina egin dute. Negozioazioek zer ematen duten jakin ostean erabakiko dituzte aurrera begirako pausoak.

Barloworld-Finantzautoko 2010etik hona aurkeztu duen laugarren enplegu-erregulazio-ko espedientea da. Hainbat zentro ixteaz eta 192 langile kaleratzeaz gainera, “hitzarmen kolektiboan baldintzak inposatu gura dituzte, lanorduak 100 ordutan gehitzea, esaterako”, adierazi du Javi Gomezek, CCOO sindikatuek EAEn duen industria arloko idazkari nagusiak. “CCOOk ekonomia arloko adituek enpresaren egoera ekonomikoa baloratu dute, eta zenbaki positiboak dituzte. Ez dute galerarik”.

## Frontoi txiki bat jarriko dute Maiztegi eskolan

### IURRETA A. Basauri

Udako oporrak aprobetxatuta, hainbat hobekuntza egingo ditu udalak Maiztegi eskolan. Gelen isolatze termiko eta akustikoagaz jarraituko dute, baina, horrez gain, estalkia dagoen gunean ura sartu ez dadin teilatu-hodiak eta zorrotzenak aldatuko dituzte. Frontoi txiki bat ere egingo dute—7x18 metrokoa—; estalitako ingurua askotariko kolorez margotuko dute, eta lekua egokitu. Bestalde, markesina bat jarriko dute umeen kotxeak uzteko, hormigoizko oinarri eta zurezko estalkiduna.

Lanak ikasturtea hasten denerako izango dira prest. 60.000 euro erabiliko dituzte, eta Jaurlearitzatik 21.000 euroko laguntza izan dute. Iurretan “kalitatezko” eskola publikoa izateko apustua egin dutela dio Iñaki Totorikaguena alkateak.

## Hile honetan hasiko dira eskolako obrak

### BERRIZ M. Zuazubiskar

Aurtengo udan Berrizko eskolako obrak hirugarren fasea burutuko dute. Joan zen asteko osoko bilkuran Orland Isoird alkateak jakitera eman zuenez, eskolako lanek 152.000 euro inguruko aurrekontua izango dute, eta hortik 84.000 euro Jaurlearitzako Hezkuntza Sailak ordainduko ditu. Gainontzekoa, berriz, ia zko soberakinetatik ordainduko dutela jakitera eman zuten.

### Hainbat lan

Datozen egunetan hasi eta udan zehar egingo dituzten lanekin, gimnasioko aldagelak konponduko dituztela, zuzendaritzako aroztogia aldatuko dutela eta eraikinetan mantenu lanak egiteko segurtasun neurriak jarriko dituztela jakitera eman zuten Orland Isoird alkateak.

## Iturritza kalea urbanizatzeari ekingo diote datozen egunetan

250.000 euro bideratuko ditu Berrizko Udalak Iturritzako urbanizaziorako

### BERRIZ M. Zuazubiskar

Oinezkoen ibilbidea hobetzea helburu duten obrak uztailean hasi eta lau hilabetera burutuko dituztela jakitera eman dute, ohar bidez, Berrizko Udaleko kideek. Oinezkoen eta ibilgai-

luen trafikoa berrantolatuta eta kalean dauden hesi arkitektonikoak saihestuta, oinezkoentzako guneak hobetuko dituztela jakitera eman dute.

Lau hilabete iraun eta 250.000 euroko aurrekontua duten la-

nak Iturritza 23-25-27-29 eta Bigdegain 2-4 inguruan egingo dituzte.

Udalak jakitera eman duenez, orain arte pribatua izan den Iturritza kalea udalari utzi diote urbanizazio jabeek.



Iturritza kalea urbanizatuko dute.

## Santa Isabel kalea oinezkoentzat egokitzeko lanak hasi dituzte

**ZALDIBAR** Itsaso Esteban Herenegun hasi zituzten udaletxe plaza ondoko Santa Isabel kalea oinezkoentzat egokitzeko lanak, eta obrak bi aste irautea aurreikusten duela eman du jakitera udal gobernu taldeak. Orain arte errepideak hartzen zuen eremua espaloia-gaz batuko dute, eta pasabide berriak ipiniko dituzte. Udal gobernuak azaldu duenez, 44.723 euroko aurrekontua dauka obrak, eta 13.522 euroko diru-laguntza jaso du udalak.

Obra horren ondorioz, Garitaherri eta Autonomia kaleak norabide bakarrekoak izango dira aurrerantzean, eta hainbat aparkaleku berri atonduko dituzte inguru horretan.

Udalak behin-behinean onartu duen Hiri Antolamendurako Plan Orokor berriak zehazten duen peatonalizaziorako joeraren adibidea da Santa Isabel kalea oinezkoentzat egokitzea. Eskolarako bidearen segurtasuna handitzea eta herria atsegina bilakatzea dira proiektuaren helburuak.

## Jubilatuena egoitzako taberna, lehiaketara

**ABADIÑO** Itsaso Esteban Traña-Matienako jubilatuen egoitzako tabernaren ustiake-ta lehiaketara atera du Abadiño Udalak. Lehiaketaren baldintzen plegua udalaren webgunean dago ikusgai, eta irailaren 15era arte aurkez daitezke eskaintzak udaletxean.

Lehiaketa publikoaren baldintzen plegua Abadiño Udalaren webgunean dago ikusgai

Udalak ezarritako baldintzen arabera, lehiaketa publiko irabazten duenak tabernaren ardura hartuko du bi urtez, eta esleipena beste bi urtez luzatzeko aukera egongo da.

2010ean Traña-Matienako jubilatuen egoitza berria zabaldu zutenetik, eskolako zuzendaritzak eta tabernako esleipendunak elkarren artean sinatutako hitzarmen baten bidez kudeatu izan da lokala.



Joan zen barikuan prentsaurrekoan aurkeztu zuten irailaren 23rako prestatu duten egitaraua.

## “Gaztetxe baten beharra” sumatzen du Matienako Gazte Asanbladak

Irailaren 23rako Sortzen Eguna antolatu dute auzoko gazte asanbladakoek

**ABADIÑO** Maialen Zuazubizkar Irailaren 23rako Sortzen Eguna antolatu dute Matienako Gazte Asanbladako kideek, duela hiru urte San Prudentzio jaiei begira sortu zuten Gazte Asanbladako kideek, hain zuen. Barikuan aurkeztu zuten ikasturte hasieran egingo duten Sortzen Eguna, Traña-Matienan. “Gazte Asanblada hazi eta hazi ari da, eta indartsu gaude. Baina herri

gehienetako gazteek euren gaztetxea duten moduan, geuk ere gaztetxe baten beharra sumatzen dugu”, adierazi zuten. Hori horrela, iraileko Sortzen Egunean autogestiorako pauso bat emango dutela iragarri zuten, eta, egun horretarako, egitarau zabaldua aurkeztu zuten.

Goizerako *Gaztetxea, gazteon ametsa* hitzaldia antolatu dute. Bertan, Durangoko, Zaldibar-

ko eta Arrasateko gaztetxe kideek parte hartuko dute. Ondoren, bazkari herrikoia egingo dute, eta arratsaldean bingo muskala eta karaokea izango dira. Iluntzean, trikipotea egongo da Petite eta Bidarten eskutik, eta gauean The Van, Baske Street Boys eta Skakeitan taldeek joko dute. Irailaren 22an, bestalde, *Gure kabuz ala hil* dokumentala eskainiko dute.

## ABADIÑON, GEREDIAGA AUZOAN // SALBADORE JAIK 2017

### ABUZTUAK 4, barikua

**20:00etan** “Donien Atxa” jaso eta txapligu eta trikiti doinuekin jaiei hasiera ematea.

**21:00 aldera** jai-batzordeak, EUSKAL OKELAZ egindako gisatua banatuko du jai eremura bertaratutako guztien artean.

**22:00etan** “PURO RELAJO” musika taldeagaz, mexikar erromeria.

### ABUZTUAK 5, zapatua

**17:00etan**, “BRISKA TXAPELKETA”

**Sariak:** 1- 120 euro, garaikurrak eta botila bana xanpain./ 2- 70 euro eta botila bana xanpain./ 3- 50 euro eta botila bana xanpain./ 4- 30 euro eta botila bana xanpain.

Parte hartzeko, bikoteko 10euro.

**18:00etan** “ASTO LASTERKETA”

**Sariak:** 1- 70 euro, garaikurra eta txakolin kutxa./ 2- 60 euro eta txakolin kutxa./ 3- 40euro eta xanpain botila.

Saririk jaso ez duten parte-hartzaile guztiei, 10na euro emango zaizkie.

**19:00etan** “TORTILLA TXAPELKETA”

**Sariak:** 1- 60 euro, gazta bat eta botila bi ardo./ 2- 40 euro eta botila bi ardo./ 3- 20 euro eta botila bi ardo.

Parte-hartzaile guztiei piperrak banatuko zaizkie. Jai batzordeak ardoa emango du, plazan afori-merienda egina dutenen artean.

**22:30ean**, BERTSOLARIAK:

- Amets Arzallus
- Maddalen Lujanbio
- Andoni Egaña
- Igor Elortza

**Gai-jartzailea**, Maite Berriozabal.

**24:00etan**, erromeria “LUHARTZ” taldeagaz.

### ABUZTUAK 6, domeka

**12:00etan** Meza. Meza ostean, “HAMABI HARRI” ezpatadantzarien eta irlanderen dantza saioa. Ohi denez, Aureskua eta Atzeskua dantzatuko dituzte jarraian.

**Goizean zehar** “BAKAILAO TXAPELKETA” pil-pil erara:

**Sariak:** 1- 80euro, garaikurra eta txakolin kutxa./ 2- 40 euro eta txakolin kutxa./ 3- 20 euro eta botila bi txakolin./ 4- 10 euro eta botila bi txakolin.

Aurkeztu eta saririk barik geratu diren guztiei, botila bana txakolin emango zaie. Kazolak eguerdiko ordu bietan aurkeztuko dira.

**Ordu bata aldera**, jai batzordearen txosnan, kangrejoak banatuko dira.

**Egunean zehar**, Lander eta Ainize trikitilariak izango ditugu jai gunea alaitzen.

**17:00etan**, “MUS TXAPELKETA”

**Sariak:** 1- 150 euro, txapelak eta botila bi xanpain./ 2- 100 euro, garaikurrak eta botila bi xanpain/ 3- 50 euro eta botila bi xanpain./ 4- 40 euro eta botila bi xanpain.

Parte hartzeko, bikoteko 10 euro jarriko dira.

**18:00etan**, “UME JOLASAK”

Joko kooperatiboak lagun hartuta. Jokoak denentzat, sariak denentzat.

**18:00etan** “IGEL TXAPELKETA”

**Sariak:** 1- 40 euro eta garaikurra./ 2- 30 euro eta txakolin kutxa./ 3- 20 euro.

Parte hartzeko, euro bat ordainduko da.

**20:30etan** “Erromeria” Ansorregi eta Larrañagagaz.

**21:00etan** “ERROMERI AFARIA”. (Entsalada mistoa, saiheskia eta arroz-esnea. Edaria eta kafea).

**01:00etan** jaien aldeko errifaren zozketa eta jaien amaiera.

**ARGAZKI ERAKUSKETA.** Salbadore egunean eta zapatuan, auzoko hainbat argazki jarriko dira ikusgai. Hamabi Harrik urtean zehar egindako ekitaldietan ateratako argazkiak ere ikusi ahal izango dira.

**Oharrak**

Erromeria-afaria 12 euro izango da, eta aurrez txartela erosi beharra dago.

Aurten ere jaien aldeko errifa atera da eta txosnan egongo da salgai. Jai batzordea ez da jaietan gerta daitezkeen ezbeharren erantzule egingo. Aurtengo jaietan ere, txosnan kamisetak egongo dira salgai!

**ANTOLATZAILEA:**

**Gerediaga auzoko jai batzordea.**

**OTXANDIO** J.Derteano  
Otxandioko Santa Marina elizan balio handiko polikromiak daude. Aberastasun hori eraberritzeko, diru-bilketa kanpaina abiatu du parrokiako batzordeak eta parrokiaren inguruko lagun talde batek. Atartean —atean eta goialdean— zein barrualdean, koruaren inguruko egurrezko egitura, daude

Finantziazioan laguntzeko, Benantzio Bilbaok kontzertua eskainiko du abuztuaren 4an

polikromiak. “Asko dira gurean ditugun artelan ederrak, eta mugatuak gure diru-iturriak”, azaldu du elizako zereginetan laguntzen duen Jose Maria Amenabarrek.

Ekarpen bat egin gura duenari interneteko [www.verkami.com](http://www.verkami.com) webgunean eskaini diote horretarako aukera. Atartearen

## Elizako atartea eta polikromiak berrizteko diru-bilketa hasi dute

Interneten diru ekarpenak jasotzeko atari bat ireki dute egunotan



Lehenengo fasean atartea berriztu gura dute, barrualdeko polikromiak aurreragorako utziz.

eta polikromien egoera jasotzen duen minutu biko bideo bat ere eskegi dute.

Gune lauak edo erliebea duten irudiak hainbat kolorez apaintzeari deitzen zaio poli-

kromia. Sasoi batean, atartea zein egurrezko egitura polikromiekin apainduta zeuden, baina, gero, gainetik pintatu zuten, polikromiak azpian ezkutatu. Hala ere, berreskuratu daitezke.

Adituek laginak hartu dituzte gehiago jakiteko, eta “balio handikoak” direla esan diete, Amenabarren esanetan.

Atarteko goialdean eta erdian dagoen erliebe batean

Otxandioko ezkutua ageri da, eta, gutxienez, 200 urte ditu.

**Kontzertua eta kamisetak**  
Eraberritze lan denak egitea garestia da. 70.000 euro beharko lirateke. Horregatik, faseka egingo dute. Lehenengo fasean atartea berriztu gura dute, 10.000 bat euroz. Diru-bilketa zein Andres Landa fundaziotik urtero jasotzen duten diru-laguntzaz gain, beste finantziario iturri batzuk landu dituzte. Esaterako, atarteko ezkutua irudiagaz kamisetak atera dituzte.

Kontzertu bat ere antolatu dute. Abuztuaren 4an, 19:00etan, Joxe Benantzi Bilbao organo-jotzaileak kontzertua eskainiko du. Bilbaok Europako hainbat kontserbatorio eta zentrotan egin zituen ikasketak. Bere ibilbidean hainbat sari irabazi ditu, munduko musikaririk onenari kolaboratu du eta musika jaialdi garrantzitsuak zuzendu ditu, besteak beste. Sarrera doakoa izango da eta dohaintzak jasoko dituzte.

## Arrazolako eliza atariko habe bat, apurtzear

Apezpikutzaren eskumenekoa da eraikina

**ATXONDO** M.Z.

Arrazolako San Migel elizako atarian zurkaintzak jarri dituzte, apurtzear dagoen habe bat jausi ez dadin. 500 urtetik gora dituen eraikineko atari zati bat jausi ez dadin hartu dituzte neurri hauek.

Estilo gotiko-errenazentista daukan San Migel eliza 1510ean eraiki zuten.

Atxondoko Udalak jakitera eman duenez, eraikina apezpikutzaren eskumenekoa da. Beraz, konponketa lanak egitea beraien esku dago.



Arrazolako elizako ataria.

## Santixako jaiak ospatuko dituzte asteburuan

**ATXONDO** M.Z.

Gaurtik martitzena bitartean ez da jai-girorik faltako Atxondon, asteburuan Santixako jaiak ospatuko dituzte eta. Zaturako, egun osoko egitaraua antolatu dute. 12:30ean igel txapelketa izango da, eta ostean paella txapelketa. Arratsalderako, berriz, mus txapelketa prestatu dute. Eguna Laja eta Olarteren trikitixa doinuek girotuko dute.

Domekan, meza, txapel jaurtiketa, briska txapelketa eta pintxo eta ogitarteko lehiaketa egingo dituzte. Astelehenean, patatak nork hobeto zuritu lehiaketa eta tortilla txapelketa egingo dituzte. Eta jaiei amaiera emateko, mozo-rru eguna ospatuko dute.

## Garaiko herria ezagutzeko bisita antolatu dute

**GARAI** M.O.

Ondareagaz lotutako herriko altxorak erakusteko asmoz, bisita gidatua antolatu dute, biharko, udalak eta Gerediaga elkarteak. Valentin Zubiaurre margolariaren erretratu bat udaletxean ipiniko dute, eta horixe izango da bisitaren ardatzetako bat.

Udaletxean elkartuko dira bisitari ekiteko, 18:00etan. Elizabarrira joango dira, eta herri txiki horretan parrokiak bi zergatik dauden azalduko dute. San Migel elizan hileta errituen inguruko bitxikeriak kontatuko dituzte, eta Zubiaurre familiaren lan gehiago ikusi ahaliko dira. Garaiko kanposantu neoklasikoan amaituko da ibilbidea.

## Euskara ikasteko diru-laguntza eman du udalak

**GARAI** M.O.

2016-2017 ikasturtean euskara ikasten ibili diren ikasleek diru-laguntza publikoa eskatu ahaliko dute, matrikulei aurre egiteko. Udalak 600 euroko partida bat aurreikusi du, eta uztailaren 30era arteko epea dago laguntzak eskatzeko.

Asistentziaren %80 eta %90 artean ziurtatzen dutenei, matrikularen %75 ordainduko die udalak. %90etik gorako asistentzia dutenei matrikularen %90 emango die, eta klase guztietara joan direnek matrikula osoaren balioa jasoko dute. Udalak “oso garrantzitsu” ikusten du euskalduntzean eta alfabetatzean eragitea, euskaldunen portzentajea handitzen lagunduko duelako.

**Seguros Bilbao**

**RUEDA BILBAO ASEGURUAK**  
**Jabier Rueda**

Landako etorbidea, 1 DURANGO  
Tel.: 946 202 710 - Faxe: 946 816 577  
[jrueda@segurosbilbao.com](mailto:jrueda@segurosbilbao.com)

**GAER DESINFEKZIOAK**



**Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:**

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...



Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxe: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ





Anfiteatroa zureko egitura batez estaliko dute.

## Indenort enpresari esleitu dizkiote anfiteatroa estaltzeko lanak

Lanak abuztu amaieran edo irail hasieran hasia da helburua

**MALLABIA** Joseba Derteano Mallabiko anfiteatroa gune estali bihurtzeko asmoa gauzatzeko gutxi falta da. Dagoeneko esleitu dituzte lanak. Lehiaketara aurkeztu diren zazpi enpresen artean, Arabako Indenort enpresa aukeratu dute proiektuaren kargu egiteko. Gasteizko enpresa horrek lortu du puntuaziorik onena. 290.318 euroko proposamena aurkeztu dute lanak burutzeko.

Lanak abuztuko azken astean edo irailaren hasieran has-

tea da asmoa. Epe horiek gauzatu balira, abendu ingururako prest egongo litzateke espazio eraberritua.

**Prozesu luzearen amaiera** Proiektu hori prozesu luze eta parte-hartzaile baten ondorioa da. Iazko martxoan Mallabiko Udalak herritarrei kontsulta egin zien aukera desberdinen artean. Herritar gehienek zurezko estaldura baten aldeko hautua egin zuten. Barruan sortuko den espazioan, umeentzat

jolasak eta helduentzat gimnasio biosasungarriko makinak ipiniko dituzte, besteak beste.

**Barruko espazioan umeen jolasak eta helduen gimnasio biosasungarriak jarriko dituzte**

Belaunaldi anitzetako herritarren bilgune izan dadila da helburua.

## Izen-ematea hasi dute ingeles klaseak hartzeko

**MAÑARIA** J.D.

2017-2018ko ikasturtean ingeles klaseetan izena emateko aukera dago uztailearen 28ra arte. Mañariko udaletxean (07:30etik 10:30era) edo herriko liburutegian (10:30etik 14:30era) egin daitezke izen-ematea. Klaseak Betsaide akademiak emango ditu eta 4-12 urte arteko umei bideratuta daude. Astean klase bi egongo dira: astelehenean eta eguaztenetan, 17:30etik 18:30era. Hileto kuota 42 eurokoa da, baina aldaketak egon daitezke izen emate kopuruaren arabera.

## Luhartzegaz dantza egiteko aukera jaietan

**IZURTZA** J.D.

Irailan ospatuko dituzten jaietako egitaraua zehaztuta dute dagoeneko. Kontzertuei dagokienez, Luhartz taldearen erromeriagaz dantza egiteko aukera egongo da. Iurretako taldea hainbat bider izan da Izurtzako jaietan. Irailaren 10ean eskainiko dute zuzeneko. Egun berean tortilla txapelketa egingo dute frontoian.

### SEI HANKAKO MAHAIA

**DANI MAEZTU PEREZ**

EH Bildu



### Tren geltokian zer?

- Maeztu abizenduna zara zu?  
- Bai.  
- Ba Zure aita ezagutzen dut, bera eta bere anaiak tren geltokiko kalean jaiotakoak dira.

Hainbatean izan dut elkarriketa hori Durangon. Nik sekula ez dut geltoki kale hura ezagutu, Durangoko garapen urbanistikoak irentsi baitzuen. Eta orain, garapen urbanistiko basatiak geltokia ere desagerrarazi nahi du.

Udaletxera eraman dugu tren geltokiaren eraispena (1.200.000€ kostua izango duena) bertan behera uzteko proposamena. PNVk eta PSEk, enegarrenez, Fran Garateren (PP) abstentzioa erabili zuten geltokia botatzeko, alkatearen kalitatezko botoa baliatzeaz gainera.

Eraikinak ez duela balio arkitektonikorik izan zen gehien erabili zuten argudioa. Argudio hori erabili Durango erdia behera bota daitekeenean, ordea. Argudio gisa nahiko pobrea, besteak beste, jakinik, balio arkitektonikoaren argudioa erabat subjektiboa dela.

Arlo politikoan alkateak erabaki du, bere alderdiaren interesei kasu egin, eta geltokia botatzea. Gure iritziz, herritarren momentua heldu da orain.

Zer iruditzen zaizue? Gure historia kolektiboaren parte den eraikina berrerabili daitekeela uste duzue? Gazteei bideratutako ideien faktoria bat izan daiteke? Zentro sozial bat? Ludoteka bat? Zer egingo zenukete 1,2 milioi € eta azpiegitura horrekin?

### DURANGALDEA ASTEON

#### Margarita Maturana Amaren Eguna, etzi

**BERRIZ** > Margarita Maturana Amaren Eguna ospatuko dute, domekan, Berrizko komentuan. Eukaristia egingo dute, 17:00etan, eta 18:00etan pintxoak banatuko dituzte. Ondoren, Berrizko San Lorentzo dantza taldeak ongiatorria emango dio Mexikoko Colima Unibertsitateko Ballet Folklorikoari.

#### Jai-giroan murgilduko dira Belatxiketan

**ZORNOTZA** > Ohiko txupina jaurtita, jaiak hasiko dituzte Belatxiketan, hilaren 30ean. San Inazio eguna, berriz, txistulariek hasiko dute. Inazio Deunaren ereserkia eta meza egongo dira 12:00etan, eta, jarraian, Arkaitz Estiballes eta Beñat Ugartetxea bertsolariak. Aizkolariak eta erromeria ere egongo dira eguerdian.

#### Santixau jaiak ospatuko dituzte Orozketan

**IURRETA** > Txapligu hotsez hasiko dituzte jaiak, astelehenean, Orozketan. Santixau Egunerako, berriz, hainbat ekitaldi antolatuko dituzte. Meza 12:00etan hasiko da eta, ostean, dantzarien saioa egongo da. Paella txapelketa, umeentzako jolasak eta briska txapelketa ere egongo dira. Ohiko errifa eginda agurtuko dituzte jaiak.

### IRITZIA

✉ [astekaria@anboto.org](mailto:astekaria@anboto.org)  
asteartea 17:00ak arteko epea

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:**  
Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta

• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia  
**DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO**

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

ANBOTOK ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitakoen eta emandako iritzien erantzukizunik.

## **> Berbaz**

Meriem Aboubi El Mansouri | Alhoda meskitako kidea | Iurreta, 1996

# “Nire pertsonalitatea Iurretako jende askoren zatitxoek osatzen dute”

Iurretan meskita zabaldu duen elkarteko kidea da Aboubi; herrian ekarpena egin gura dutela dio



**> BERBAZ** Markel Onaindia  
 “Plazer bat da zuekin elkarbizitzea”. Mezu hori zabaldu zuen joan zen barikuan Abdelghani Aboubik, Iurretako Alhoda meskitaren inaugurazioan. Axura elkarteko presidentea da bera, familiagaz 14 bat urtez Iurretan bertan bizitzen dagoena. Alaba Meriem arabe bezain euskaldun sentitzen da, eta euskara solte dabil. 21 urteko neska gaztea izan zen inaugurazioan jendeari harrera egin zionetako bat; izan ere, herriko elkarteei parte hartzeko deialdi zabala egin zieten. Herriar ugari elkartu ziren ongietorria emateko, tearen eta gozoen bultan. Harreragaz pozik daudela azaldu du Meriemek.

Herriko jende ugari batu zen barikuko inaugurazioan. Pozik zaudete?

Bai. Oso pozgarria izan da, Iurretan eduki dugun harre-

ra oso beroa izan baita, ondo onartu gaituzte. Ez genuen us-te hainbeste jende etorriko zenik. Herriatik eta kanpotik etorri zen jendea, Bilbotik, Eibarrik, Ermuatik... Meskita bat topaleku bat da guretzat; berdina nongoa zaren edo nondik zatozen, hemen guztiok gara berdinak.

Zure aitak, elkarteko presidentea, musulmanen irudi ona zabaltzeko garrantziaz berba egin zuen inaugurazioan. Badirudi zelanbait behartuta zaudetela biolentziaren aurrean jarrera bat hartzera.

Gai horregatik ipini ditugu leiho handiak, kanpotik barruan zer egiten den ikusteko. Ate irekiak egingo ditugu, eta jendeak galdetu ahalko du. He-dabideetatik ezartzen dizkiguten mitoak ezabatzeko, kontuan hartu gaitzaten. Meskitara doana erradikalizatzen de-

“*Musulman ona meskitara doana da, ezagutza arrazionala topatzen duena*”

“*Meskitala datorren jende guztiak Iurretan ekarpena egitea gura dugu*”

“*Gai horregatik ipini ditugu leiho handiak, kanpotik barruan zer egiten den ikusteko*”

la eta arazoak sortzen dituela diote komunikabideek. Ez da horrela. Errealitatean, musulman ona meskitara doana da, bertan denbora pasa eta ezagutza arrazionala topatzen duena, hau guztia zergatik gertatzen den galdetzen duena. Koranak dio niretzat gura dudana desio behar dudala bizilagunarentzat. Pertsonak gara eta denok bezala akatsak egiten ditugu, baina mito horiek ezabatu gura ditugu. Gainera, hemen urte asko daramatzagu bizitzen; ni, esaterako, arabe bezain euskaldun sentitzen naiz.

Noiz etorri zineten Iurretara bizitzen? Euskaraz ederto moldatzen zara.

Lehen Hezkuntzako 2. mailan etorri nintzen hona, 7 urte gaz. Marokon jaiotakoa naiz, baina txikitan Arrasatera etorri ginen. Gero, handik Iurretara. Maiztegi herri eskolan ikasi nuen, eta gero Juan Orobiogoi-

tia institutuan, batxilergoa. Iurretako jabetzakoa naiz dagoeneko [barrez]. Hemen hezi gara. Adin kritikoa nuenean etorri ginen hona, pertsonalitatea eraikitzen zaudenean, eta horrelako uneetan, inguruko jendeak laguntzen zaitu. Horregatik, nire pertsonalitatea Iurretako jende askoren zatitxoek ere osatzen dute. Elkarbizitza ona dago herrian, giro oso atsegina.

**Axura elkartea Durangalde mailakoa da, ezta? Noiz sortu zen?**

Hamar bat urteko ibilbidea du Axura elkarteak. Lehen Abadiñon egon zen meskita, eta hortik hona etorri gara. Askok osatzen dugu komunitatea, 500 bat pertsonak. Hala ere, meskitan denak batera ikustea oso arraroa da, bakoitzak bere ordutegia eta familia dituelako.

**Meskita errezurako izaten al da bakarrik?**

Normalean meskita bati buruz hitz egiten dugunean, Marokon edo beste herri musulman batean, errezurako soilik izan ohi da. Baina hemen ez gaude herri musulman batean, eta beraz, denetariko leku bat izan behar da. Topaleku bat, umeak elkartu eta giro musulmanean hezteko lekua... Adibidez, arabiar hizkuntza eta Korana ikasteko klaseak emango ditugu, islama era ludiko batean eta arrazionalki ezagutzeko. Ramadana eta behartsuei laguntzeko ekintzak ere erakutsi gura dizkiegu, eta irteerak egin. Sinismena ez dugu herentziazko gai huts bat izaterik gura.

**Integrazioa da zuen helburuetako bat.**

Hori da gure helburu handiena. Meskitara datorren jende guztiak Iurretan ekarpena egitea gura dugu; jaso gura dute-na eman beharko lukete. Komunikazioa, hurbiltasuna eta parte-hartzea behar dira. Adibidez, Munduko Arrozen jaialdian egon gara aurten, lehen aldiz. Jaietako herri bazkarietan ere parte hartzea ondo legokeela uste dut.

**Urtarriletik ibili zarete meskita egokitzen.**

Jendea leku askotatik etorri da laguntzera. Meskitako obra Euskal Herriko musulman guztien elkarlan bat izan da, era bolutarioan egin dena. Margotzen, mozten, itsasten... Lan horretan ere islatzen da musulman onaren eredua.

Vanesa Fernandez Guerra | Zinebi Nazioarteko Zinemaldiko zuzendari berria | Iurreta, 1980

# “Euskal zinegileak ausartagoak izatea gustatuko litzaidake; orokorrean, oso konbentzionalak gara”

Datorren urtetik aurrera, Bilboko Zinebi zinema jaialdiko zuzendari berria izango da Vanesa Fernandez iurretarra

**> ZINEMA** Itsaso Esteban  
Zelan hartu duzu Zinebi jaialdiko zuzendari kargua?  
Ilusio handiagaz, erronka handia baita Bilbokoa bezalako nazioarteko zinema jaialdi bat zuzentzea. Zinebi A kategoriako jaialdia da, eta erantzukizun handia dakar karguak, baina lan egiteko oso gogotsu hartu dut izendapena.

**Lehiaketa publiko bidez hautatu zaituzte.**

Bai, azken 17 urteetan jaialdia zuzendu duen Ernesto del Rio aurten da jubilatzen, eta bere ordezkora topatzeko lehiaketa publikora deitu zuen Bilboko Udalak. Hiru parte izan ditu hautaketa prozesuak: lehenengo galbahea esperientzia, hizkuntzak eta formakuntza izan zen, gero curriculumaren balorazioa egin zuten, jaialdiaren etorkizunerako proiektu bat aurkeztu behar izan genuen, eta, azkenik, elkarrizketa pertsonala egin ziguten. Hiru lagun ailegatu ginen elkarrizketara, eta ni hartu ninduten.

**Zinebiren 59. edizioa izango da aurtengoa, eta zeu zara jaialdia zuzenduko duen lehenengo emakumea.**

Bai, Zinebin sekula ez da emakume bat zuzendari izan, eta oso pozgarria da gure jaialdian bezala, beste esparru batzuetan ere gero eta emakume gehiago ikustea. Gero eta emakume zinemagile edo programatzaile gehiago dago, eta zuzendaritza karguetan ere gutxinaka gero eta gehiago gara.

**Orain arte zer hartu-eman eduki duzu Zinebigaz?**

Alde batetik, jaialdiko film laburren hautaketa batzordeko kidea izan naiz, eta baita opera primen lehiaketarako taldekoa ere. Bestalde, euskal sortzaile gazteekin hainbat proiektu aurrera ateratzen laguntzen ere ibili gara. *Nosotras, mujeres Euskalduna* dokumentala egiten lagundu genuen iaz, duela bi urte *Distantziak* dokumental kolektiboa, eta orain hiru urte *Errautsak*. Zinema eta alde performatiboa bultzatzen ere jardun izan gara.



**Zinebiko lan horiek beste hainbategaz uztartu dituzu. Irakasle jardun izan zara.**

Bai, duela 13 urtetik ibili naiz EHU Un Ikusentzuzko Komunikazio eta Publizitate Sailean klaseak ematen. Bartzelonan, Sortze Dokumentalaren masterran ere ematen ditut eskolak, eta zinema dokumentalari lotuta, Kuban eta Argentinan ikastaroak eskaini ditut. *Freelance*

“*Erantzukizun handiko kargu da, baina gogotsu nago lanerako*”

moduan, bestalde, proiektuen aholkulari lana ere egin dut.

**Aurtengo edizioari begira, Ernesto del Rio eta biek darazue zuzendaritza.**

Bai, bion artean gabilta aurten. Uztailearen 15ean itxi zen film laburrak aurkezteko epea, eta asko ikusi ditugu dagoeneko. Orain film luzei helduko diegu, eta Locarno eta Venecia-ira bidaiatuko dugu hango jaialdi-tako uztatik ere aleren bat hautatzeko. Irailaren amaieran itxiko dugu aurtengo edizioa.

**Zer ikuspegi berri eman gura zenioke Bilboko jaialdiari?**  
Nire proposamena da Zinebi, gaur egun den bezala, film labur, dokumental eta opera pri-

marik onenen erreferentziazko erakusleho izatea. Uste dut jaialdiak oso adi egon behar duela belaunaldi berriek egiten duten lanari. Proposamen ausartak eta oso garaikideak izaten dira, urtero, film laburren sailean, adibidez. Zinema kanonikotik haratagoko diziplina anitzeko lanei eta euskal sortzaileei lekua egiten jarraitzea ere gura nuke. Finean, zinema

“*Proposamen ausart eta garaikideei adi egon behar du jaialdiak*”

garaikidearen mostra interesgarria izatea Zinebi.

**Oso egonkortuta dago jaialdia, 60. edizioari begira, iada.**

Bai, eta oso ona da hori. Oso polita da duela 20 urte jaialdian bere lehenengo film laburra aurkeztu zuen jendearen bilakaera ikustea. Jaialdietan sortzen den giroa oso inportantea da etorkizuneko proiektuak martxan jarri eta hausnarketa bultzatzeko.

**Atzerriko zinemagintzaren no-bedadeak dira Zinebiren ardatzetako bat. Asko bidaiatzen duzu beste jaialdietara?**

Bai, gure lanaren parte oso inportantea da. Beste herrialde batzuetako jaialdietara filmak ikusi eta ekartzera joatea —eta ahal bada Estatuko estreinaldia lotzea—, A kategoriako jaialdi handiekin harreman sendoak lantzea da gure egitekoa, eta, horretarako, asko bidaiatu beharra dago.

**Zelakoa da hainbeste film ikusteko lana?**

Gogorra da. Ordu asko eman behar dituzu filmak ikusten, eta ikusitakoaz hausnartzen. Pentsa, plataformaren bitartez bakarrik, ia 5.000 film labur inguru jasotzen ditugu. Hala ere, oso lan ederra da, ikusleei normalean zinema-aretoetan ikusi ezin daitezkeen film interesgarriak ekartzen baitizkiegu.

**Film bat ikusterakoan, zer da gehien baloratzen duzuna?**

Ikusentzuzko lengoia ausarta baliatzea. Begirada pertsonala, intimista, ematen duten filmak ditut gustuko. Izan ere, uste dut zinema egiteko, bizitza pertsonalean zein maila kulturean esperientzia bizi izanak berebiziko garrantzia duela.

**Ikusten duzu horrelako begiradarik euskal zinemagintzan?**

Euskal zinegileak ausartagoak izatea gustatuko litzaidake; uste dut, orokorrean, oso konbentzionalak gara. Hala ere, noski, badaude euskal zinegile gazte ausartak ere. Horien lana nazioartean gehiago zabaltzea izan behar litzateke, nire ustez, etorkizuneko helburua.

# Jazz flamenkoa, koraren doinua eta euskal sortzaileak, Musikaireren bigarren zatian

Datozen bi asteburuetan Jorge Pardo eta Ruper Ordorika arituko dira, besteak beste, Elorrion

## > MUSIKA Itsaso Esteban

Uztailearen 7an Musikaire jaialdia hasi zenetik, hainbat dira Elorrioko aurtengo udaren soinu bandari euren ekarpena egin dioten artistak: The Skatalites, Shaun Booker eta Mahotella Queensek jo dute. *Los Pelopidas* antzezlan klasikoa eskaini du Suripanta Teatro taldeak, eta Kukai, Brodas Bros, Amaia Elizaran eta Ertzaren dantza garaikideko obra laburrek ikuslez bete zuten plaza, domekan.

Eguraldia lagun izan dute orokorrean, eta Aitor Iriarte *Lobo* antolatzaileak dioenez, hain zuzen ere horixe izaten da Musikairek arrakasta borobila izatea baldintzatzen duen alda-gaia. "Datozen artista guztiak puntakoak dira", dio Iriartek, "emanaldia Elorriokoak lako lorategi batean eta doan eskaintzen baduzu, berez izango da arrakastatsua... Ateri badago, gainera, gainezka egiten du".

## Pardoren jazz flamenkoa

Jaialdiaren erdia baino gehiago bete du Musikairek, baina uztaileko bi asteburutarako plana eskainiko du, oraindik. Asteburu honetan, Lariz jauregian dira zitak. Jorge Pardo (Madril,



Flamenkoa eta jazz uztartzen aitzindaria izan zen Jorge Pardok joko du gaur Elorrion.

1956) arituko da, gaur. Zeharkako flauta edo saxoa konposizio flamenkoetarako baliatzen aitzindaria izan zen Pardo, eta, besteak beste, Paco de Lucíagaz eta Camaronengaz kolaboratu zuen. Hiru hamarkadako ibilbidean Chick Corea edo Pat Metheny jazzlariekin ere jo izan du. Elorriora Josemi Carmonak gitarragaz, *Bandolerok* perku-

sioagaz eta Pablo Baezek kontrabaxuagaz lagunduta dator.

Ba Cissoko Gineako musikariaren doinuek beteko dute bihar Lariz jauregiko parke hori. Kora hari-instrumentua jotzen du Cissokok, eta Pardok flamenkoagaz bezala, Afrikako antzinako doinuak jazz, rock, reggae, blues edo elektronika-gaz nahasten ditu.

Etzi, hiru antzezlan laburrez amaituko da Musikaireren asteburu honetako eskaintza, Casa Jaran, 19:00etan. *Komunak*, *Encuentro nocturno de muerte y olvido* eta *Estocolmo, síndrome* eskainiko dituzte.

## Azken hirurak, Tolan

Tola jauregiko hiru kontzertu-gaz amaituko da aire zabaleko kultur emanaldien Elorrioko jaialdia. Uztailearen 28an Arkaitz Minerrek, Lutxo Neirak eta Hasier Oleagak lagunduta arituko da Ruper Ordorika bertan.

Uztailearen 29an, Antonio Lizanaren boskotearen txanda izango da. Buleriak kantatzen dituen saxofonista, edo saxofoia jotzen duen flamenko abeslaria da Cadizko Lizana.

Uztailearen 30ean, 19:00ean, jazz giroan amaituko da Musikaire. Euskal folklorea munduko beste folkloreekin uztartzen duen Khami taldeak joko du, tartean Iñaki Salvador eta Garikoitz Mendizabal musikariak dituen seikoteak.

## GEURE DURANGALDEA

**LIBE MIMENZA CASTILLO**

Kazetaria



## Irakur nazazu

Oporrak ohiko plazerak areagotzeko eta gozatzeko dira, baita inoiz laztandu gabeko plazer berriak ezagutzeko ere. Denbora da oporren oparia. Geuk erabakiko dugu, noski, denbora hori zerekin bete.

Neuk, ordularien sekuentzia apurtzeko sortuko diren egun beroetan, tarteka, irakurtzeko idatziak izan diren hitzak izango ditut bidaide. Bidean amaitu gabe utzitako narrazio liburuak izango dira lehenak, hautsaren bakardadea arintzeko asmoz mesanotxean ditudan ezagunak.

Historiaren iragan hurbilean kokatutako kronika aukeratu dut lehen orritik hasteko: *Berriak jaiotzen*. Jon Maia lehen pertsonan mintzo zaigu apurketaz, bertsolaritzaren tradizioaren eta modernitatearen arteko talkaz, baita jardun artistikoaz edota identitateaz ere.

Iragan hori geroan baliatzen asmoz, Joxe Azurmendiaren *Hizkuntza, nazioa, estatua* saiakera gorde dut gogoetarako. Halaber, euskararen indarberritzearen inguruko kezka dugunok badugu beste zer irakurri: Berriak asteon kaleratutako *Euskararen bila-kaera soziolinguistikoa* udako seriea kasu.

Aukeraketa erabat pertsonal eta partziala duzu hau; lerro-tara ekarri ez ditudan letrak ere izango ditudalako bidaide. Emakumezkoen lumak ere existitzen direlako, bestelako generoak ere atsegin ditudalako eta euskarazko egunkariak maite arren, erdaretan bazka egitea ere merezi duelako.

Zeuk erabaki oporrak zerekin bete. Bueltan kontatuko dizkiogu elkarri gozatutakoak: aurki ezazu *irakur nazazu* diotsun hori, eta *Fibonacci*ren sekuentzia eder batean bezala batu eta gehitu plazerak!



Euskal Herriko jazz musikariek osaturiko Khami taldeak itxiko du uztailearen 30ean jaialdia.

durango  
**2017**  
uda  
kalean  
bizi

san agustin  
kultur gunea  
kalean

MUSIKA  
ANTZERKIA  
ZIRKOA  
MAGIA

Uztailearen 21a, barikua  
20:00 Musika eskolako parkea  
**Baldin Bada** Shakti Olaizola

PLATERUENA  
Durangoko Kafe Antzokia [www.plateruena.eus](http://www.plateruena.eus)  
Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

**JAT ETX EA** EGUNEKO MENUAK  
UZTAILEAN ZEHAR  
TERRAZAN ERE  
EMATEN DITUGU

Abuztuaren itxita egongo da  
Uztailearen 29tik, irailaren 3ra arte (biak barne)

# JAIAK!

GARAI + MAÑARIA + MALLABIA

2017ko UZTAILA eta ABUZTUA

A decorative border of various tropical leaves in shades of green and blue surrounds the central text. The leaves include large, lobed monstera leaves and smaller, pointed leaves.

# GARAI MAÑARIA MALLABIA

# GARAIKO JAIEN EGITARAUA

## Uztailak 23, domeka

**14:00** Jubilatuen bazkaria.

## Uztailak 24, astelehena

**19:00** DONIEN ATXA jartzea. Ondoren, dantzarien azken entsegua.

**Ondoren**, Lumagorri oilaskoen pintxoak dastatzeko aukera.

**23:00** erromeria "EZTEN GIRO" taldeagaz.

## Uztailak 25, martitzena

**10:30** Txistulari, dantzari eta agintarien kalejira.

**11:00** Meza nagusia San Migel Eleizan.

**Ondoren**, Santiago imajinaren ohiko prozesioa Eleizabarriraino apostoluari omenaldia eginez, agintariena eta Gernikako Arbola dantzatzuz.

**Ondoren**,ezpata-dantzarien saioa plazan.

**18:30** Erregelen erakustaldia.

**Ondoren**, kantu-poteoa.

## Uztailak 26, eguaztena

**10:30** Txistulari, dantzari eta agintarien kalejira.

**11:00** Eleizabarrin, meza nagusia. Ondoren, Santiago imajinaren prozesioa parrokiaraino.

**Ondoren**, ezpata-dantzariak plazan. Jarraian gizonezkoen erregelak eta ondoren emakumeak.

**18:00** TORTILLA TXAPELKETA. Partaideek ekarri beharko dute: sua, arrautzak, olio, kipula eta gatza.

**SARIAK:**  
1.- 80€ eta garaikurra Jokin Arregi indusketa lanak emanda  
2.- 50€ eta botila bat xanpain  
3.- 30€ eta botila bat xanpain

**21:30** erromeria "HOBANEUKE" taldeagaz.

## Uztailak 27, eguena

**11:00-13:00 / 15:00-18:00** haurrentzako jolas parkea frontoian.

**18:00** MUS TXAPELKETA Izen ematea: 10 € bikotea

**SARIAK:**  
1.- 80€ eta txapela  
2.- 50€  
3.- 30€  
4.- botila bi xanpain

**18:30** DUATLOI TXIKIA. Ume bakoitzak bizikleta, kaskoa eta arropa erosoak ekarri beharko ditu.

## Uztailak 28, barikua

**21:00** Antzerkia "FILAMENTO FAROLARIA".

**23:30** erromeria "LUHARTZ" taldeagaz.

## Uztailak 29, larunbata

**14:30** BAZKARI HERRIKOIA. Ondoren, DJ BULL.

**23:00** DJ BULL.

## Uztailak 30, domeka

**12:00** BRISKA TXAPELKETA. Izen ematea: 10 € bikotea

**SARIAK:**  
1.- 80€ eta txapela  
2.- 50€  
3.- 30€  
4.- Botila bi xanpain

## 18:00 ASTO PROBEN ERAKUSTALDIA

Partileku (lurreta)  
Landaluce (Peruri Leioa)  
Construcciones Torrontegui (Fika)

## 22:00 BERTSO SAIOA

· Julio Soto  
· Sustrai Colina  
· Unai Iturriaga  
· Jon Maia

**Ondoren:** Erromeria "LISKER" taldeagaz.

## Uztailak 31, astelehena

**11:00** Meza.

## Ondoren HERRIKO DANTZARIAK.

**Ondoren**, Durangaldeko Igel Txapelketa. Izen ematea 2€.

**SARIAK:**  
1.- Pernille.  
2.- Untxi bi.  
3.- Gazta.

## 18:00 ASTO PROBEN ERAKUSTALDIA

Elorduy (Berango)  
Maiora (Maume)  
Koldo Bidaurrezaga (Larrabetzu)

**SARIAK:**  
1.- 400€ eta MANTA Garaiko Udalak emanda  
2.- 350€ eta garaikurra Kimu Loradendak emanda  
3.- 300€ eta garaikurra Egoinek emanda  
4.- 275€  
5.- 225€  
6.- 200€

**22:00** AFARI HERRIKOIA. Norbera arduratu beharko da afariaz.

**Ondoren**, ERRIFEN ZOZKETA.



Santixau jai  
zoriontsuak  
opa dizkizuegu!



GARAIKO UDALA



Uztailearen 24an Donien Atxa ipini eta gero, dantzan hasiko dituzte Garaiko jaiak.



Iaz emakumeek bakarrik parte hartu zuten erregelen erakustaldian.

## Gizon eta emakume dantzariak arituko dira Erregeletan aurten

Eskualdeko hainbat dantzari elkartuko da, ohi bezala, erregelen emanaldian

**> JAIK** Itsaso Esteban  
Dantzarako tradizio eta zale-  
tasun handia dago Garain, eta  
horrek isla nabarmena dauka  
jaietako egitarauan ere. Urte-  
ro-urtero, dantza tradizionalen  
emanaldiek hainbat aldiz bete-  
tzen dute herriko plaza dantza-  
riz eta ikusleez, eta jaiegunitari-

ko asko plazako erromerietan  
dantzan amaitzen dituzte garai-  
tarrek eta bisitariak.

Uztailearen 24an, Donien Atxa  
ipini eta gero egingo dute ohi-  
turazko azken entsegua dantza-  
riek, 25ean eta 26an *Ezpatadan-  
tza* eta *Erregelak* dantzatuko  
dituzte, eta herriko dantzarien

emanaldia izango da uztailearen  
31 goizean ere. Iaz, emakumez-  
ko dantzariak bakarrik eskaini  
zituzten *Erregelak*, lehenengoz.  
Jai batzordeko kideek aurreratu  
duten, aurten Garaiko jaietan  
dantza hori egitera gonbidatzen  
dituzten eskualdeko taldeen  
ordezkaritzan, emakume zein

gizon dantzariak jardungo dira  
elkarregaz plazan.

Dantzazaleen gozamenerako,  
Lisker, Luhartz eta Hobaneuke  
taldeen erromeriak jasotzen  
ditu Garaiko jai egitarauak. Jai  
batzordeko kideek azaldu dute-  
nez, lanegun biren bezperetan  
egiten zituzten erromeriak ez di-  
ra izango aurten. 25ean eta 31n,  
ez da erromeriarik egongo.

Jaiak amaitzeko, uztailearen  
31n nobedade bat proposatzen  
du, aurten, jai batzordeak: etxe-  
tik eramandakoagaz herriko  
plazan afaldu eta jaietako erri-  
fen zotz egitea ikusteak.

Urte askoan arrakasta han-  
diz egin duten jaietako tortilla  
txapelketa ere ez da faltako Ga-  
raiko jaietan, aurten. Uztailearen  
26an, 18:00etan, ekingo diote

**Jaiak amaitzeko,  
plazan elkartuko  
dira garaitarrak  
afaltzera**

patatak zuritzeari. Urtero 60-70  
tortilla inguru aurkezten dituzte  
lehiaketara, eta ekitaldi arra-  
kastatsua izaten da.

## Xabi Larreak 'Filamento farolaria' akrobazia ikuskizuna eskainiko du

Uztailearen 28an izango da aktore bilbotarraren klown eta akrobazia saioa

**> ANTZERKIA** Itsaso Esteban  
Uztailearen 28an, 21:00etan ha-  
siko du Xabi Larrea antzele  
bilbotarrak Garaiko jaien ba-  
rruko antzerki emanaldia. Zir-  
kuko ikuskizuna da Larrearen  
*Filamento farolaria*, farolarien  
aspaldiko lanbidea inspirazio  
iturritzat hartuta, eta klowna,  
mimoa, akrobaziak eta oreka uz-  
tarturik sorturikoa.

Adin guztietako ikusleei zu-  
zenduriko ikuskizuna da *Fi-  
lamento farolaria*, elektrizita-  
tea asmatu aurretik munduan  
zeuden 631.000 farolarien lana

eta zeuzkaten zailtasunak kon-  
tatzen dituen, langile haiek  
omendu gura dituen.

**Adin guztietako  
ikusleei  
zuzenduriko obra  
da Larrearena**

Xabi Larrearen ideiaz eta  
ekoizpenagaz, Gotzon Mugikak  
zuzendu du *Filamento farolaria*,  
eta 2008an estreinatu zutenetik,  
han eta hemen aurkeztu dute.

Xabi Larrearen antzerki ema-  
naldi horretaz edota dantza saio  
eta erromeriez gain, badago kul-  
turzaleentzako urteroko beste  
hitzordu bat ere Garaiko aurtengo  
jaietan: bertso saioa. Uztaile-  
aren 30ean, 22:00etan hasita,  
Julio Soto, Sustrai Colina, Unai  
Iturriaga eta Jon Maia jardungo  
dira bertsoan.

Urterokoak eta garaitar eta  
bisitarien harrera ona duten  
beste hainbat ekitaldi ere ez di-  
ra faltako aurtengo jaietan: asto  
probak eta karta joko txapelke-  
tak, kasurako.



2008an estreinatu zuten 'Filamento farolaria' antzezlanak.



# MAÑARIKO JAIEN EGITARUA

## ABUZTUAK 12, zapatua

**13:00** Txupinazoa, kanpai hotsa eta Pitxitxiren igoera.

**14:30** Herri bazkaria.

**Ostean** mus eta igel txapelketa.

**17:00** Zirko tailerra.

**22:30** Kontzertuak:

- The Mockers
- En Tol Sarmiento
- Enkore

## ABUZTUAK 13, domeka SAN LORENTZO EGUNA

**7:00** Herri lanak: plazaren garbiketa, ostean hamarretakoa.

**11:00** Meza San Lorentzo basilikan, ostean dantzariak.

**18:00** Dantza alardea.

**19:00** Kike Tormenta (Todo o nada) Kontzertua U2 Taskan.

**20:30** "Paradoxa" Zirko ikuskizuna Suhar Prest Konpainiarekin.

## ABUZTUAK 14, astelehena

**11:30- 13:30** Umeentzako jolasak:

- Ludoteka (2-6 urte)
- 2 Puzgarri (3-12 urte)
- Karts (10-14 urte)
- Zezen mekanikoa (11-16 urte)

**16:00-19:00** Umeentzako jolasak.

**19:30** Pintxo lehiaketa.

**22:30** Kontzertuak:

- Storm
- Strombers
- Juantxo Skalari & La Rude Band

## ABUZTUAK 15, martitzena ANDRA MARI EGUNA

**7:00** Herri lanak: plazaren garbiketa, ostean hamarretakoa.

**10:00** Kalejira Txistulariekin.

**11:00** Meza Kirikiño Abesbatzarekin, ostean dantzariak.

**13:00** Herriko esku pilota partiduak.

**17:00** Umeentzako tailerrak:

- Margoketa
- Ur jolasak (eguraldiaren arabera)
- Jolas kooperatiboak

**17:00** Karabina Jurtiketa (Ateneo Cinegetico Mugarrak antolatuta).

**19:00** Herri Kirolak Bihurriekin.

**20:00** Txistorrada.

**22:00** Kontzertua:  
• Gontzal Mendibil

## ABUZTUAK 16, eguaztena SAN ROKE EGUNA MOZORRO EGUNA. GAIA: UDAZ BLAI!

**11:00** Meza, ostean dantzariak.

**12:00** Paella txapelketa.

**14:30** Paellak aurkeztu eta sari banaketa.

**18:00** Briska txapelketa.

**18:59** Herriko argazki erraldoia.

**19:00** Guatekea txiringitoan.

- Talentu lehiaketa
- Mozorro onenaren saria
- Sangria

**22:00** Pitxitxiren Agurra.

**7:00** Herri lanak: plazaren garbiketa, ostean hamarretakoa.



Ondo pasatu  
Andra Mari jaietan!



MAÑARIKO  
UDALA



**EZ EZETZ DA!**  
JAIK ERRESPETUZ GOZATU!



## “Ilusioa egiten du horrelako gauza batean parte hartzeak”

Hontza natur zientzien museoko kideek jaurtiko dute jaietako txupinazoa

**> TXUPINAZOA** Markel Onaindia Hontza museoko eskutik hasiko dira Mañariko jaiak. Enrike Huertak sortutako proiektua Leire Huerta eta Igor Notario dabilta zuzentzen.

**Pozik zaudete txupinazoa botatzeko arduragaz?**

**Leire Huerta:** Garazik deitu zidan, eta hasieran uste nuen udalekuen gai bategatik zela. Pozik gaude, ilusioa egiten du horrelako gauza batean parte hartzeak. Gainera, 30. urteurrena dugu museoan. Erantzukizuna da; urduri gaude apur bat, baina pozik.

**Jaietan ere zabalik edukiko duzue museoa, ala oporrak hartuko dituzue?**

**L.H.:** Urte guztian zabalik izaten dugu, eta jaietan ere zabalik egongo da.

**Igor Notario:** Gainera, Andra Mari egunean sarrera doan ipi-

niko dugu. Berez ez da garestia -3 euro-, baina jaiak direnez, etortzen denak doan izango du.

**“Andra Mari egunean sarrera doan ipiniko dugu”**

**Beraz, 30. urtemuga ospatzen zabilzate.**

**L.H.:** Lehen etapan, Mañarian bertan baina beste eraikin batean egon zen museo. Ekainaren 5ean bete dira 30 urte zabaldu zenetik. Itxi egin behar izan zen, eta urte piloan horrela egon zen. Hala ere, itxita egon arren, nire aitak lanean jarraitu zuen. Azaroan hiru urte izango dira berriro zabaldu genuenetik. Urtemugaren harira, areto berri bat zabaldu dugu, eta, ondorioz, hainbat ale lekualdatzen gabilta.

**Gutzira, zenbat pieza dituzue ikusgai?**

**L.H.:** 1.300 ale daude publikora bistan, baina kutxetan sartuta 37.000 inguru daude. Beraz, badugu zer erakutsi. Nire aitaren helburua iraunkorki aldatzen joatea da. Bere ilusioa kutxetan zegoen dena erakustea zen, pena ematen zion kutxetan gordeta edukitzeak.

**I.G.:** Apurka-apurka gehiago helitzen dabilta. Natur zientzien museoa dagoela enteratu, eta etxean disekatuta edukitako animaliak bidaltzen dizkigu jendeak.

**L.H.:** Eta aitak pozarren jasotzen ditu!

**Ikastetxeetako umeei erakustea da zuen asmo nagusia.**

**I.G.:** Museoko areto bakoitzera sartzen direnean hartzen duten emozioa ikustea polita da. Bestalde, herriko parkea berri-



Notario eta Huerta, museoko areto berrian.

ta dagoenez, bertan jolasteko aukera dute umeek. Aparte, bisita kultural bat ere eskaintzen du-

gu; mendien eta saien kabien inguruko azalpenak ematen ditugu, besteak beste.



Gastronomiak ere lekua edukiko du, pintxo txapelketagaz.

## Pintxo lehiaketa egingo dute lehen aldiz, herriko gazteekin elkarlanean

Banaka edo taldeka parte hartu ahalko da pintxorik onena egiten saiatzeko

**> GASTRONOMIA** M.O.

Aurtengo jaietako nobedade nagusia lehenengo pintxo lehiaketa izango da. Gazte lokalean ibiltzen diren gazteekin elkarlanean antolatu dute jai batzordekoek, eta abuztuaren 14rako ipini dute zita. Herritarrek sukaldari sena atera eta elkarregaz gastronomiaz disfrutatzeak aukera bat izango da.

Antolatzaileek herriko tabernetan utziko dituzte lehiaketan apuntatzeko paperak, egunaren aurretik. Banaka edo taldeka parte hartu ahalko da, eta norberak aukeratutako pintxoa

plazan bertan egin beharko da 14an, jendaurrean. Gero, epaile batek erabakiko du zein den Mañariko pintxorik onena. “Jai-giroan zerbait polita egin

**Jaien azken egunean talentu lehiaketa egingo dute**

eta gero, elkarregaz afaltzea da asmoa”, jai batzordekoek esan dutenez.

Pintxo lehiaketarena ez da gazteekin elkarlanean antolatutako ekintza bakarra. Izan ere, jaien azken egunean talentu lehiaketa egingo dute, herritarren artista dohainak jendaurrean erakusteko.

**Mozorro udatiarra**

Bestalde, Mozorro Eguneko gaia *Udaz blai* izango da. Beraz, mañariarrak hondartzara, txiringitora edota oporretara joango bailiran jantziko dira. Mozorrorik onenak saria edukiko du, eta txosnak txiringito eran dekoratuko dituzte.

**aserradero  
zugazagoitia  
agirre  
maderas**

Aldegoiena, 2-A  
MAÑARIA (Bizkaia)  
Tel./Faxa: 946 818 798

**HERRI-TABER**  
EGUNEKO MENUA - PLATER KONBINATUAK - KAZUELATXOAK  
OGITARTEKOAK - OTORDUAK ENKARGUZ  
Herriko plaza · Tel.: 946 200 278 · MAÑARIA

**HARATEGIA - URDAITEGIA  
BIZKARRA**  
BASERRIKO OKELA  
TXORIZOAK ETA ODOLOSTEAK  
Tel.: 946 816 945 · Mug.: 615 781 247 · 48212 MAÑARIA (Bizkaia)

**Gaztelu**  
AROTEGIA

Elondo eta gaztainondo egurrezko lehiok  
(PVC eta aluminioa), guk eginikoak

**AROTZERIA ORO HAR:**

ATE BLINDATUAK  
BARRUALDEAK

TARIMAK  
ZOKALOK

Aldabarrena auzoa · MAÑARIA · carpinteriagaztelu@hotmail.com  
Tel.: 656 787 524 · Faxa: 946 200 358

# MALLABIKO JAIEN EGITARAUA

## ABUZTUAK 14, astelehena UMEEN EGUNA

**11:30-13:00** Mallabiko Trikitilariak.

**12:00** Umeen txupinazoa botako du Alkate txikiak.

**12:30-14:30//16:00-18:00** Umeentzako parkea: puzgarriak, jumping-a... parkean (euria bada, herriko frontoian).

**18:00** Bits festa parkean.

**18:00-21:00** Kale animazioa Burrenba txarangagaz.

**19:00** Txupinazoa, Izero Andres abeslariaren eskutik.

**19:30-21:00** Txokolatada plazan, eta ondoren, III. Adarra jotzea.

**Sariak:**

- 1.- saria 40€-ko erosketa-txartela.
- 2.- saria 20€-ko erosketa-txartela.

**21:30** Pilota partiduak Mallabia I Kirol Etxean

**Dario-Merino // Elordi- Tolosa**

**Elezkano II-Zabaleta // Altuna III- Irusta**

**PILOTA PARTIDURAKO SARRERAK**

Sarrerak abuztuaren 7tik 11ra salgai udaletxean.

-Mallabiko langabe, ikasle, jubilatua eta pentsionistentzat 12€, justifikazio txartela erakutsita.

-Gainontzeko mallabitarrentzat 18€.

-Partidu egunean leihatila 21:00etan zabalduko da eta sarrerek prezio bakarra izango dute, 25€

**23:00** Erromeria Gora Herria taldeagaz, plazan.

## ABUZTUAK 15, martitzena ANDRA MARI EGUNA

**11:00** Meza Jasokunde parrokan.

**Ondoren kalejira** plazatik frontoira, Mallabiko dantzariekin.

**12:15** Mallabiko dantzarien emanaldia frontoian.

**17:30** Mallabiko XXVII. HARRI-JASOTZE SARIA Harri Txikia

**PARTE-HARTZAILEAK:**

Olaizola (Zarautz) / Eizagirre (Zarautz) / Peñagarikano (Aizarnazabal) /

Iñigo Jimenez (Eibar) / Jon Gisasola (Mallabia) / Ion Peter Scott (Algorta)

**Sariak:**

- 1.- 800€ garaikurra eta txapela
- 2.- 650€ eta garaikurra
- 3.- 500€ eta garaikurra
- 4.- 400€

Gainerako parte-hartzaileentzako dieta 250€. Dagoen marka hausten duenari 180€. Lehiaketan parte hartzeko izen-ematea txapelketa egunean amaituko da. Sari hauek atxikipen fiskala izango dute.

**17:00** Tute txapelketa Kontzejuzarren

**Sariak:**

- 1.- saria 120€ eta garaikurra
- 2.- saria 100€
- 3.- saria 80€
- 4.- saria 60€

**19:00** Antzerkia: Txatarra, parkean.

**22:30** Iker Lauroba, ondoren Izaroren kontzertua parkean

## ABUZTUAK 16 eguaztena

### SAN ROKE EGUNA, NAGUSI ETA KUADRILLEN EGUNA

**11:00 XVIII. Paella, VI. marmitako eta I. patata tortilla lehiaketarako izen-ematea.**

OINARRIAK: Patata-tortilla lehiaketa 16 urtetik beherakoentzat izango da. Ez dago paella, marmitakoa edota patata-tortilla egiteko derrigorrezko osagairik. Marmitakoa eta patata-tortilla 13:00etarako aurkeztu behar dira eta paella 13:30erako, epaimahaiak dastatu eta sariak banatzeko. Talde bakoitzak bere sua ekarri beharko du, butanoa edo barbakoa, baina ezin da sua lurrean egin. Lehiaketa herriko plazan egingo da.

**Sariak:**

MARMITAKOIA: 1.- saria 110€ / 2.- saria 55€.

PAELLA: 1.- saria 110€ / 2.- saria 55€.

PATATA-TORTILLA: 1.- saria 50€-ko erosketa-balea / 2.- saria 30€-ko erosketa-balea.

Mallabiko Trikitilariak animatuko dute giroa. Bazkarirako, ekarri etxetik plater, edalontzi eta mahai-tresnak.

**12:00** Meza, Jasokunde parrokan.

**14:00** Paella, marmitako eta patata-tortilla lehiaketako sariak banatzea.

**14:15** Jubilatuen bazkaria Kontzejuzarren.

**16:00** Tolin mariatxia jubilatuentzat Kontzejuzarren.

**17:30** Kuadrillen arteko jolasak.

**20:00** Mallabitar guztientzat txerri errea dastatzea (2 pintxo, 1€) eta sagardoa doan.

**20:30** Erromeria Luhartz taldeagaz, plazan.

**Ez dugu emakumeen aurkako indarkeriarik, eraso sexistarik edota jarrera homofobo eta arrazistarik onartuko!!!**

**Ertzaintza (Eibar) Tel. 943 53 17 00**

**Larrialdiak: 112**

Jaietan ezbeharren bat gertatuko balitz, Mallabiko Udalak ez luke inongo erantzukizunik izango

Idi probak: MALLABIA I KIROL ETXEA 2017-ABUZTUAK 19,20 eta 21 Izena ematea: abuztuaren 6an (domeka) 12:00etan udaletxean

**SARIAK**

- 1.- 1700€ garaikurra, txapela eta mantak
- 2.- 1450€ eta garaikurra
- 3.- 1300€ eta garaikurra
- 4.- 1100€ eta garaikurra
- 5.- 1000€
- 6.- 900€
- 7.- 850€
- 8.- 800€
- 9.- 750€
- 10.- 700€

\*Sarietara heldu ez arren 30 unteko marka gainditzen duen idi pareak 350€ jasoko ditu. \*Sari hauek atxikipen fiskala izango dute.



**hierros  
arrate, s.a.**

Goitondo Industrialdea, MALLABIA  
Ermuatik Markinarako bidean | 127 PK - 48260 Ermua |  
Tel.: 943 170 612 / 943 170 616 | www.hierrosarrate.es

JUBILATUEN ETXEA

☎ 943 176 602 • MALLABIA

Ondo pasatu  
Andra Mari  
jaietan!



MALLABIKO UDALA

# “Paella txapelketa jaietan arrakastarik handiena izaten duen ekimena da”

Migel Mugarzaren eta Jesus Guisasolaren taldeak lehen eta bigarren sariak irabazi zituen iaz

> **JAIK** J.Derteano

Paella txapelketak 18. aldia egingo du abuztuaren 14an eta Migel Mugarza Martinezek eta Jesus Guisasola Guisasolak urtero parte hartzen dute. Iaz euren taldeak paella bi aurkeztu, eta lehenengo bi postuak eskuratu zituen. Podiumaren bueltan ibiltzen dira urtero. Baina sariei baino garrantzia handiagoa ematen diote egun horretan sortze den giroari. “Herrian arrakastarik gehien duen ekimena da”, dio Guisasolak.

Abuztua oparoa da jaietan. Inguruko herri asko ospakizuntan daude. “Sarritan ez da erraza jendeari herrian eustea, baina paella txapelketaren eguna herriarrena izaten da. Jaietako egunik onena da guretzat”, dio Guisasolak. Paella egiten, elizpean denak elkarregaz bazkaltzen, kuadrillen arteko jokoetan parte hartzen... “Lagun artean ibiltzean sortzen den saltsa hori da inportantea. Mahairik mahai joanez kontu kontari ibiltzea, adar apur bat jotzea, beharbada txorizo pintxoren bat jatea... hori da politena”, kontatu du Mugarzak.

Sukaldari baino gehiago, laguntzaile lanetan ibiltzen direla diote. “Paella on baten sekretua emazteei galdetu behar! Geuri ere ez digute esaten, beraz begi-



Migel Mugarza eta Jesus Guisasola, Mallabiko parkean.

**“Lagunartean sortzen den saltsa eta giroa da inportantea”**

ra zelako komeriak!”, onartu du Guisasolak, barreka.

Paellaren bueltan hamaika istorio eta anekdota dituzte. Esaterako, Mugarzak oraindik go-goan du gaztetxoak zirela zelan

joaten ziren herriko errekarra karramarroak harrapatzerara, ondoren paellak egiteko.

Bazkalostean egiten diren kuadrillen arteko jokoak dira eguneko beste osagai inportante bat. Urtero parte hartzen dute, eta aurten ez da salbuespena izango.

Guisasolak gertutik ezagutzen du herri kirolen mundua. Aizkolaria da eta loba harrija-sotzailea du. Hain zuzen, Jon Guisolak, 18 urteko loba gazteak,

Mallabiko 27. Harri-Jasotze Sarian debuta egingo du aurtengo Andra Mari jaietan. Goi mailako harri jasotzaileak batuko dira abuztuaren 15ean.

Migel Mugarza bertsozalea da, eta behin baino gehiagotan animatu da bertso idatziak sortzera. Esaterako, Mallabiko neska gazteen taldeak ETBko Oh Happy Day! lehiaketan hirugarren amaitu zuenean, herrian egin zieten omenaldirako bertso idatziak sortu zituen.

## Goi mailako pilota partiduak jaietako lehen egunean

> **JAIK** J.D.

Abuztuaren 14an, jaietako lehenengo egunean, pilota jaialdi interesgarri batez gozatzeko aukera egongo da Mallabia I pilotalekuan. Atariko partiduan eteko pilotaria izango da protagonista: Aitor Elordi. 21 urteko mallabitar gazteak Tolosagaz jokatu du, Darioren eta Merinoren aurka. Tolosak atzean agindu behar luke, Elordiri airez sar-

## Altuna III-Irusta eta Elezkano II-Zabaleta bikoteek jokatu dute

tzeko aukerak sortuz. Dario pilotari indartsua da, eta partiduko erritmoa bera markatzen saiatu ohi da. Partidu nagusian Altuna III.ak eta Irustak osatuko dute bikote bat eta Elezkano II.ak eta Zabaletak beste. 18 eurotan, sarrerak udaletxean izango dira salgai, abuztuaren 7tik 11ra. Herriko langabe, ikasle, jubilatua eta pentsionistentzat 12 euro izango da, beti ere justifikazio txartela erakutsita. Partidua- ren egunean bertan ere erosi daitezke. Leihatilan sarrerek prezio bakarra izango dute: 25 euro.

**DESGUACES MALLABIA**

- Metalen erosketa: kobrea, brontzea, letoia, beruna, aluminioa, bateriak eta abar.
- Autoen birziklatzea balio-bizitza bukatzen zaienean.
- Ibilgailuen berreskuratzea.
- Ordezko piezen salmenta.

Mallabarrena Ind., 7 - 48269 MALLABIA - Tel./Faxa: 943 175490 - Mug.: 616 552 158

**Ganadu garraioa**  
**Juan Luis Irazola**

Tel.: 609 794 504  
943 170 551  
48269 MALLABIA

**Excavaciones BOLIÑA**  
Mallabia - Bizkaja

· 629 340 410 ·  
· 618 954 280 ·  
excavacionesbolina@hotmail.es

**GOIMEK**

**GOIMEK** ere mallabiarrekin

Ondo pasa Andra Mari jaietan!

DANOBATGROUP

www.goimek.com

# “Ametsen atzetik borrokan gabiltzanoi txupinazoa botatzeko aukera ematea oso polita da”

Birako azken kontzertua herrian eskainiko du Iزارo Andres mallabitarrak

**> TXUPINAZOA** M. Zuazubiskar Hilaren 15ean Om diskoaren birako azken kontzertua eskainiko du Iزارo Andres Zelaietak Mallabian. Hala ere, aurreko egunean, mallabitarrak jaiei hasiera emango dien txupinazoa jaurtiko du.

**Mallabiko jaietako txupinera izango zara. Zer suposatzen du zuretzat herriko jaiei hasiera ematea?**

Ametsen atzetik borrokan gabiltzanoi herriak txupinazoa botatzeko aukera bat ematea oso polita da. Iaz Aitor Elordi pilotari profesionalak jaurti zuen txupinazoa, eta aurten niri tokatu zait. Azken batean, esker oneko zerbaite da.

**Hazten ikusi zaituen herriaren aurrean zer esango duzun pentsatzen hasia zara?**

Egia esan, ez. Oraindik ez dut ezer pentsatu, abuztu erdialde hori oraindik urruntxo ikusten dut eta.

**Nola bizi izaten dituzu Mallabiko Andra Mari jaiak?**

Jaiak buru-belarri bizi izaten ditut. Ez dira oso jai handiak izaten, herri txikia dugulako gurea. Baina, adibidez, guretzat paella



Iزارo Andres Bilboko BBK Live jaialdian. Argazkia: Josetxo Perez

eguna egun handia izaten da. Herriko kuadrilla guztiak jokoak egiten ibiltzen gara, eta esango nuke gure kuadrilla egun honetan izaten dela batez ere talde animatua eta dinamikoa.

**Aurten, gainera, jaietan kontzertua eskainiko duzu. Om diskoaren birako azkena.**

Hala da, bai. Toki askotan jotzen ibili gara, bai Euskal Herrian eta baita Estatuan ere. Baina azpiegitura arazoak direla medio, ez dut inoiz herrian bandagaz jotzeko aukerarik izan. Beraz, jaietan azpiegitura hori jartzen dela aprobetxatuta, nire burua modu boluntarioan aurkeztu nuen birako azken kontzertua bertan jotzeko. Gainera, kontzertu honeguz, zertan gabiltzan ikusi ahalko dute herritarrek, eta Mallabitik kanpo arrakasta zelan lortu dugun ere jakin ahal izango dute.

**Zure lehen kontzertua ere herrian eman zenuen.**

Bai. Ez zen birako lehen kontzertua izan, nire lehen kontzertua izan zen, orokorrean. Baina egia da kontzertu honeguz zikloari amaiera bat emango diodala.

**Duela pare bat aste Bilboko BBK Live kontzertuan ikusi zintugun. Nola joan zen?**

Kontzertuaren aurretik oso arduratuta nengo. Jaialdiaren aurreko astean gaixorik egon nintzen eta ahotsik gabe nengo. Ahal izan nituen sorginkeria guztiak hartu nituen, eta ikusleen animoaguz eta laguntzaguz kontzertua ondo irten

zen. Oholtzatik jendeak norberaren abestiak abesten dituela ikuste itzela izan zen. Gainera, Bilboko BBK Live jaialdi handian egotea, horrelako eszenatoki batean, izugarria izan zen.

**Bestalde, Gatiburen azken diskoan kolaboratu zenuen. Zer suposatzen duen horrek zuretzat?**

Egia esan, ilusioz hartu nuen, eta espero ez nuen kolaborazio bat izan zen. Barre asko egin nuen, eta disfrutatzeke aukera eman zidan lan talde handi bat aurkitu nuen. Gainera, honek konfiantza hartzeke balio izan dit, azken batean, kolaborazio honeguz, Gatibukoei nire lana gustatu egiten zaiela ikusi dut eta.

**Asteon, Tu Escala de Grises proiektuaren berri zabaldu duzu zure sare sozialetan.**

Tu Escala de Grises uda honetan kaleratuko dugun bideoklip berria da. Bertan paisaia mota bi uztartzen ditugu, basoa eta hondartzak.

**Zure lehen bideoklipak, berri, ehun mila erreproduzio baino gehiago izan ditu youtuben.**

Bai, aurreko astean lagun batetik eman zidan horren berri. Parada bideoklipak ehun mila erreproduzio baino gehiago zituela. Askorentzat hori ez da ezer izango, baina horrek asko esan gura du niretzat. Ez nuen espero inoiz ehun mila erreproduzioetara iristerik eta oso eskertuta nago, bai entzuleei eta baita nigan lanean dabiltzan guzti-guztiei ere.

**URANGA** Goitondo Ind. pab. 1 - MALLABIA  
Tel. 943 17 97 17  
Whatsapp 685 75 18 48  
www.urangaautoak.com

**IBILGAILUEN KONPONKETA ETA MANTENIMENDUA**

Ondo pasau jaixetan!

**LARZEP** Urtiaga etorbidea, 6  
MALLABIA  
info@larzep.com  
Tel.: 943 17 12 00

HYDRAULIC

**RHEYDE** lanabesak s.l.

- ✓ PERFILATUAK
- ✓ MOLDAKETAK
- ✓ BERRESKURATZEAK

Goitondo ind., 3. pab. - 48269 MALLABIA  
184 PK - 48260 ERMUA  
Tel.: 943 170 898 - rheyde@rheyde.com

**Excavaciones Jon**  
Lur mugimenduak

• Jon Garitagoitia Gallastegui •

MOTA GUZTIETAKO INDUSKETAK HONDAKINDEGIA

Pagotxueta, z/g • GEREА - 48269 MALLABIA  
Tel.: 943 17 26 54 • Mug.: 629 446 099

**HERBERIKO**

943 174 952

PLATER KONBINATUAK, BOKATAK, ENTALADAK, PIZZAK, ERRAZIOAK, KAZULARAK ETA ENKARGUZ ERA GUZTIETAKO JANARIAK

**BETEARTE**  
Hondakin ez arriskutsuen zaborteia


BI-3342 errep. Areitio garaia MALLABIA pk. 38  
Tel.: 943 170 307 - Faxe: 943 176 160  
info@betearte.com www.betearte.com

# Irabazi asteburu pasa zoragarria edo tablet bat!

**Bidali zure argazkiak  
irailaren 30era arte**

## UDAKO 3. ARGAZKI LEHIAKETA

**anboto**   
komunikabideak



Durangaldeko argazkirik  
onena, 2016koa  
**JOSEBA ACEDO**

Durangaldetik kanpoko  
argazkirik onena, 2016koa  
**LEIRE UNZUETA**



## 2 KATEGORIA SARITUKO DIRA

- ESKUALDEKO ARGAZKIRIK ONENA
- DURANGALDETIK KANPOKO ARGAZKIRIK ONENA

ANTOLATZAILEA

**anboto**   
komunikabideak

LAGUNTZAILEAK

  
Anetatu? Egau lagat

  
Abadiño Zurekin



Informazio gehiago [www.anboto.org](http://www.anboto.org) webgunean

**> MUSIKA** Itsaso Esteban Otsailean kaleratutako *Over the bridge* lehenengo diskoa zuzenean aurkezteari ekingo dio, abuztuan, Storm Durangoko taldeak; 14an Mañariko jaietan joko dute, eta 19an Orioko Zingira kanpinean; eta irailetik aurrera ere hainbat kontzertu eskainiko dituzte; lehenengo, irailaren 15ean, Lezoko gaztetxean. Izan ere, otsailean diskoa plazaratu ostean, beraz aurkezteko lotuta zituzten kontzertuak bertan behera utzi edo atzeratu egin behar izan zituzten, arrazoi pertsonalengatik.



Peio Agirre berriztarra izan da Storm seikotearen azken fitxajea.

2016ko abenduan Berrizko Lorentzo Records estudioetan grabatu zuten lehenengo diskoa

Diskoko lehenengo kantuarren izenburu bera du Storm taldearen lehenengo diskoak, *Over the bridge*. 2016ko abenduan Berrizko Lorentzo Records estudioetan grabatu zuten, eta lan horretan oso gustura ibili zirela azpimarratu dute taldekideek. Berrizko estudioaren ardura-dunengandik jaso zuten tratua-gatik oso eskertuta daude.

Ingeleseko letrak dituzten 12 pop-rock kanta biltzen ditu diskoak. Unean uneko egoera eta aldarrearen arabera sortu-

## Abuztuan ekingo die lehenengo diskoaren aurkezpenei Storm-ek

Otsailetik dago 'Over the bridge' kalean; abuztuan ekingo diete kontzertuei

rikoak, anitzak, direnez kantak, taldekideek ez dute euren musika estilo zehatz batez identifikatzerik gura.

Durungaldeko hainbat tabernatan eskuratu daiteke *Over the bridge* diskoa: Durangoko Gure Tokin, Mañariko U2n, Abadiñoko Abarkateruean eta Berrizko Guzurren daude eskuragai.

Zebel taldea desegin zutenean, talde hartako hainbat kidek sortu zuten Storm, 2015ean. Taldeko bateria-jotzailearen iloba leuzemiaz hil zen, eta haren eta gaixotasun hori duten ume guztien omenez konposatu zuten kanta baten izenburua izan zen, hasiera batean, *Storm*. Hortik dator taldeak hartu duen izena ere.

Joannah Keenen ahotsaren inguruan, Ander Olmok, Sergio Querok, Alberto Riosek, Carlos Nuñezek eta Peio Agirrek osatzen dute, gaur egun, Storm. Peio Agirre berriztarra izan da taldearen azken fitxajeketa, eta bere kideek diotenez, "hasiera-hasieratik modu naturalean" egokitu da taldera, eta "oso gustura" dabilta.

## Bertso eta musika saio ibiltaria: Kargak & Deskargak

**> BERTSO MUSIKATUAK** I. E. Bertsolaritza eta musika inprobisatuz udan kaleko emanaldi ibilaldiak eskaintzeko elkartu dira Igor Elortza eta Unai Iturriaga bertsolari durangarrak eta Josu Zabala eta Rafa Rueda musikariak. Baionako, Gasteizko, Lizarrako eta Bilboko jaietan arituko dira uda honetan.

Emanaldi horien ostean erabakiko dute, Iturriagak aurreratu duenez, ikasturtean zehar *Kargak & Deskargak* leku gehiagotan eskaini ala ez. "Lagunekin berriro elkartu eta ondo pasatzea" dute, oraingoz, helburu nagusia.

Baionako, Gasteizko, Lizarrako eta Bilboko jaietan eskainiko dituzte emanaldiak udan

Lehenago 7 Eskale taldean eta 2007 eta 2008 bitartean Gu Ta Gutarrak egitasmoan ibili ziren elkarrekin Iturriaga, Elortza eta Zabala.

## Manilako zine festibalean aktorerik onenaren saria jaso du 'Argi' filmak

Argi protagonistaren txikitako papera bete zuen June Gomez saritu dute

**> ZINEMA** M. O./I. E. Argi protagonistaren txikitako papera bete zuen June Gomez eman diote emakumezko aktorerik onenaren saria Ichill Manila Film Festivalen, Filipinetan. Iratxe Mediavilla zuzendari elorriarraren pelikula

Calellako (Herrialde Katalanak) zine jaialdian ere proiektatu zuten joan zen astean.

Elorrioren filmatu zuten, eta iazko urrian estreinatu zuten filma, Arriolan. Pelikula bihotzez landutakoa izan zela azaldu zuten ANBOTOri eskainitako

elkarrizketan Mediavillak, Gomezek eta Sabina Aizpuruk —Argiren papera nerabezaroran— estreinaldiko astean. Neska bat desberdina denean, eta herri txiki batean bizi denean, zelako zailtasunak bizi dituen kontatzen du filmak.



Filmeko protagonistaren umezaroko papera antzetzten du June Gomezek.

## Jon Gorospek irabazi du I. Begira Photo saria

'N. Mountains' argazki proiektua saritu diote

**> ARGAZKIGINTZA** I. E. Jon Gorospe (Gasteiz, 1986) argazkilariak irabazi du Durangoko Begira Photo jaialdiak antolatutako argazki sorkuntza lehiaketaren lehenengo edizioa. *N. Mountains* lana aurkeztu du Gorospek lehiaketa horretara, eta 800 euroko saria eta urriaren 26tik azaroaren 18ra arte Begira Photo jaialdiaren barruan bere lana Durangoko Kuruzesantu Museoan ikusgai ipintzeko aukera irabazi ditu.

Iparraldeko 60. latitudetik gorako mendialdeetako paisaien inguruko ikerketa batetik sortutakoa da *N. Mountains*. Bere argazki sailaren bitartez Europako iparraldeko naturaren analisia egiten du proiektu horretan Gorospek.

Lehiaketako antolatzaileek nabarmendu dutenez, munduaren errepresentazio sinisgarritik eta edertasunaren bi-

laketatik aldentuta, "ikuslea paisaia haiekiko esperientzia bat bizitzera eramango duten kode estetikoetara bideratzea" da Gorospek argazkilari gasteiztarraren helburua. Durangoko lehiaketako epaimahaiaren arabera, Gorosperen *N. Mountains* obrako argazkiek "hunkitu" egiten dute ikuslea.

800 euro eta urrian Durangon bere lana ikusgai ipintzea dira lehiaketako sariak

Juan Zapater BilbaoArteko zuzendariak, Garazi Arrizabalaga Durangoko Museoeko koordinatzaileak eta Gemma Besa Gasteizko Amárica areto-ko koordinatzaileak osatu dute lehiaketako epaimahaia.

Sabin Kortabarria Ugaldea | Errugbi epailea | Elorrio, 1964

## “Errugbi jokalariek lez inoiz iritsiko ez nintzen lekura heltzea lortu dut epaile lanetan”

Ohorezko mailan eta nazioartean epaile lez aritu da Sabin Kortabarria elorriarra

**> KIROLA** Maialen Zuazubiskar Asteon Sabin Kortabarria errugbi epaileagaz izan da ANBOTO, aurreko asteetan Ibon del Olmo futbol epaileagaz eta Alaitz Biritxinaga txirrindularitza epaileagaz izan ondoren. Kortabarriak 26 urte daramatza errugbi epaile lez, eta nazioarte mailan hainbat urte egin ditu.

**Noiztik zabilta errugbi epaile lez lanean?**

1991 ingurutik nabil epaile lez errugbi partiduetan. Lehenengo, gaztetxoan partiduetan arbitro lanak egiten hasi nintzen, eta apurka-apurka maila garrantzitsuagoko partiduak epaitzea lortu nuen.

**Hala ere, hasierako urteetan arbitro lanak egiteaz gain, errugbian ere jokatzeko zenuen.** Elorrioren taldea sortu zenean hasi nintzen errugbian jokatzeko. Hainbat urte egin nituen jokalaritza moduan, eta urte batzuetan jokatzeko eta epaile lanak egitea uztartu nituen. Gainera, aurretik errugbi jokalariek izateko ezinbestekoa izan zen niretzat epaile lez aritzeko. Errugbian, beste kirol batzuetan ez bezala, oso zaila da kirol horretan inoiz aritu gabe epaile izatea. Beste kirol batzuetan ez bezala, askorentzat errugbiko legeak arrotzak izaten baitira. Beraz, inoiz jokatu ezik oso zaila izan daiteke, ezinezkoa ez esatearren, epaile lanetan aritzea.

**Zerk bultzatu zintuen jokatzeari utzi eta epaile lanetan jarraitzea?**

Epaile izateak badu horrelako botere bat; zure inguruan 30 jokalaririk dituzu, eta, nolabait esateko, guztiak zure menpe daude. Horrek beti erakarri izan nau, eta behin epaile lanetan hasita, uztea oso zaila da. Horrez gain, epaileen munduan gorantz egiten duzun heinean, oso zaila da gauza biak uztartzeko.

**Hala ere, zuk diozun botere horrengatik sarritan oso kritikatuak izaten zarete epaileak.**

Egia da askotan kritikak jasotzen ditugula, baina, errugbian, normalean, kritika horiek errespetuz esandakoak izaten dira. Azken finean, normala da jokaldi batean iritzi ezberdinak izatea. Hala ere, jokaldi horiek ahalik eta ondoen epaitzea izaten da gure lana.

**Kirol batzuetan irainak izaten dira epaileen eguneroko oia.**

Errugbian, normalean, epaileak, jokalariek, entrenatzaileak...ez dira iraintzen. Ni ez naute inoiz iraindu. Gogoan dut Elorrioren errugbi partidu bat ikusten nengoela, partiduak ikusten zegoen herritar bat irainka hasi zela. Orduan, partiduak ikusten geunden hainbat kidek isiltzeko eskatu genion, bestela zelaitik botako genuela esanez. Gizonak ez zuen gure jarrera ulertzen, berarentzat normala zen partidu batean jendea iraintzea. Errugbian ez du irainik onartzen.

**Errugbi jokalariek, partiduak bukatu ostean, hirugarren denboran izaten dute. Epaileak badu tokirik hirugarren zati horretan?**

Noski, zati hori ere oso garrantzitsua da, horri esker gure arteko harremanak estutzen ditugu eta. Gainera, hirugarren denborak errugbiak duen kutsu berezia indartu eta partiduan zehar sortzen diren txarto ulertuak konpontzeko balio izaten du.

**Epaile lanetan hasi eta urte gutxira ohorezko mailako partiduak eta nazioartekoak epaitzera heldu zinen.**

Hala da, bai. 1991n arbitro lanetan hasi, eta 1993rako ohorezko mailan nabilen. Lau urte geroago, berriz, nazioarteko mailako partiduak epaitzen nituen, eta hamar urtez Europan ibili nintzen maila gorenetan.



Sabin Kortabarria epaile lanetan. Argazkia: Ainhoa Muriel.

“Askotan kritikak jasotzen ditugu, baina, normalean, errespetuz esandakoak dira”

“Hirugarren zatian partiduan zehar sortzen diren txarto ulertuak konpontzen dira”

**Beraz, epaile bat heldu daitkeen mailarik gorenean epaitu duzu?**

Bai. Europako errugbi epaile batek epaitu dezakeen mailarik gorenean ibili naiz. Errugbi jokalariek lez inoiz iritsiko ez nintzen lekura heltzea lortu dut epaile lanetan. Gainera, Europa gehiena zeharkatzeko aukera izan dut urte hauetan guztietan, talde eta selekzio nagusien partiduak toki pribilegiatu batetik biziz.

**Egun, berriz, Euskal Herriko partiduak epaitzeaz gain, epaileen formakuntzaz ere arduratzen zara.**

Kirolean beharrezkoa da epaileak. Epailerik barik ezinezkoa

izango litzateke partiduak jokatzeko. Beraz, epaileak behar dira, eta horretan gabiltza.

**Durangaldean nola dago epaileen egoera?**

Gaur egun ez gaude epaile askorik. Elorrioren bi gaude, eta Durangok baditu, momentu honetan, ikasten dabilten epaile batzuk. Beraz, gure etorkizuneko epaileak izango diren horiekin lan egitea tokatzen zaigu.

**Guztiak gizonezkoak zarete?**

Durangon badago ikasten dabilen bat, Oihane Alakano. Bera da nire apustu nagusia datorren urterako, Oihane Euskal Herri mailan aritzea dut helburu.



Lagun Onak pilota elkarteko eta Ametx erakundeko arduradunak, eguaztenean finalak aurkezteko eskaini zuten prentsurrekoan.

## Master Kaiolako txapela bizkaitar batek jantziko du lehenengoz

Karregal galdakoztarrak eta Agirreamalloa markinarrak jokatuko dute finala

**> PILOTA** J. Derteano  
Zornotzako Master Kaiolako hirugarren aldiak aurretik sekula ikusi bako irudia utziko du: bizkaitar bat buruan txapela duela. Orain arteko aldi bietan final batera ere ez da bizkaitarrik heldu. Aurten, aldiz, gazteen mailakoa Gaizka Karregal galdakoztarrak eta Josu Agirreamalloa

markinarrak jokatuko dute, uztailaren 22an, 18:00etan.

Aurten lau t'erdian aurrez aurre izango diren bigarren aldia izango da. Maiatzean Bizkaitxo txapelketako finala jokatuko zuten. Orduan, Karregal nagusitu zen, ozta-ozta: 22-20. Aurrekari horrek argi erakusten du maila paretsuko pilotariak direla.

### Atzelaria, finalean

Gazteen ostean, 22 urtez azpikoen finala jokatuko dute, hori ere lau t'erdian. Nabarmentzekoa da aurrelariaren esparru naturalean atzelari batek muturra sartzea lortu duela aurten. Aitor Aranguren atzelari usurbildarra izango da finalistetako bat. Hori gutxi balitz, gazte mailan

aritzeko adina du oraindik, baina 22 urtez azpikoan aritu da. Peio Etxeberria uhartera izango du aurkari. Hau ere maila handiko pilotaria da eta badaki Zornotzako txapelketan finala irabaztea zer den: orain urte bi kadete mailako txapela eskuratu zuen. Beraz, "partidu gogorra eta parekatua" aurreikusten du Jabi Emaldik, txapelketa antolatu duen Lagun Onak pilota elkarteko presidentek.

Master Kaiola Euskal Herriko pilota zirkuituan sartu dute aurten eta gazte mailako pilotaririk onenak batu ditu beste behin ere.

### ADITUAREN TXOKOA

**ALFONSO ARROIO MONASTERIO**

ETBko kirol kazetaria



### Nostalgia

Ez naiz batere nostalgikoa. Are gehiago, ez dut nostalgiarekin aurrera egin daitkeenik. Baina zer esango dizuet. Frantziako Tourra puri-purian zela, horixe sentitu dut. Landa, Nieve eta Castroviejo ikusita sasoi bateko Euskaltel-Euskadi eta laranja kolorez ziprztindutako errepide bazterrak etorri zaizkit gogora. Euskal selekzioa ez, baina horren hutsunea betetzen zuen taldea zen. Euskaldunok, Pirinioetan eta Alpeetan harrotasunez erakusten genion gure nortasuna eta izaera munduari.

Egun, egitasmo horren amaierarekin, xanpainaren aparra bailitzan, behera egin du egoera horrek. *Ez dira betiko garai onenak* euskal txirrindularitzarentzat. Elitean talderik ez, profesionaletan gero eta ordezkari gutxiago, eta txarrena dena, behetik datozenek aterik zabaltzen ez dela dakusate. Azken urteetan irauten dihardu gure txirrindularitzak. *Egunetik egunera* okerrera egin du egoerak. Aitzitik, badirudi azkenean *ispiluaren aurrean* jarri eta *zuzen heriotzaraino* ez joateko erabakia hartu dela. Jauzia egin eta bigarren mailan aritzeko deliberoa hartu du Euskadi-Muriasek. Olatu laranjatik, esperantza berdera. *Ez dago ilusio faltsurik. Infernuko atean* egon ostean, zeruko atea zabaldu zaie euskal txirrindulari gazteei. Itzulian, Vueltan edo etorkizunean Tourrean euskal talde bat ikusteko aukera izatea ez da ahuntzaren gauerdiko eztula. Telebistaren aurrean Mikel Landari so ilztatuta nagoen bezala, talde berdearekin ere egon nahiko nuke; *zorutzen naizela*.

## Zilarrezko Ligatik kanpora utzi dute Zornotza taldea

Saskibaloia taldeak helegitea jarri dio erabakiari



Zornotzak Urrezko Ligarako igoera fasea jokatuko du aurten.

### > SASKIBALOIA M.Z. / J.D.

Espainiako Saskibaloia Federazioak datorren denboraldian Zilarrezko Ligan jokatuko duten 16 taldeen berri eman zuen martitzenean, eta Zornotza Saskibaloia Taldea ez zegoen zerrendan. "Harrituta gelditu ginen, Zornotza ST taldeen artean ikusi ez genuenean", adierazi du Joxe Etxebarria presidentek.

"Dokumentuak epeaz kanpora aurkeztu genituela esan digute eta, gure ustez, ez da horrela", azaldu du presidentek. Hori horrela, helegitea aurkeztuko dutela jakitera eman du. "Abokatuak errekurtsioa prestatzen dabilta, eta dagokigun mailan, Zilarrezko Ligan, jokatuko bo-

rrokatuko gara", ohartarazi du. Bestalde, egoera honek ez du kirolariaren eta taldearen prestaketa "kaltetuko" Etxeberriaren esanetan.

Zornotza Saskibaloia taldea Zilarrezko Ligako talderik onenetakoa izan da aurten. Urrezko Ligarako igoera fasea jokatuko du, eta hainbat kanporaketa gainditu zituen, harik eta Granadak finalerdietan kanporatu zuen arte.

"Dokumentuak epeaz kanpora aurkeztu genituela esan digute; gure ustez, hori ez da horrela"

R.P.S. 21406

A. Urreta podólogo

**Adinara Urreta Jainaga**

OINETAKO PATOLOGIAK  
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK  
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

IMQ MAPFRE

Herriko gudarien kalea, 10 behea - DURANGO  
Tel./Faxa: 946 215 404

**Albisteak eta agenda,** bizkor eta eskura.

**Telefono gida** osatuena: zuzenean deitzeko aukera.

**Parte hartu,** galderak eginez, erantzunak lortuz.

**Pertsonalizatu,** zure herria aukeratuz.

**DESKARGATU DOAN !**



**anboto.org**  
**MUGIKORREAN**

Available on the App Store

Google Play





Innovation  
that excites

## STOCK-AREN LIKIDAZIOA GAURSAN



**5.000 €**rainoko aurrezpena\*

**APROBETXATU UNEA ETA ERAMAN  
NISSAN QASHQAI BAT 5.000 €RAINOKO AURREZPENAREKIN**

**GAURSA**  
Arriandi Auzoa, 12 48215 - Iurreta - Bizkaia - Tel. 946 205 000

Kontsumo mistoa: 4,9 - 6,4 l/100 km. CO<sub>2</sub> isurpenak: 129 - 149 g/km.

\*5.000 €raino Qashqai-en, Penintsula eta Balearretako PSP gomendatuari aplikaturiko deskontuak, barne dauzka FAP, garraioa, Nissan Assistance, sustapenaren deskontua, BEZ eta ZGZB, Espainiar merkaturako, nahiz eta azken hori agian ez den aplikagarria zure Autonomia Erkidegoan. Aplikaturiko zergek erosketaren unera arte aldaketak jasaten badituzte, prezioa indarrean dagoen zergaldi berriari egokituko zaio. Deskontuak egiteko eroslearen izenean dagoen erabilitako ibilgailu bat eman behar du bezeroak eta Espainian Sukurtsola duen Magic Plan de RCI Banque SAren bidez finantzatu behar du. Finantzatu beharreko gutxieneko zenbatekoa: 6.000 €. 24 hilabeteko gutxieneko egonaldia. Salbuetsita daude Flotak eta enpresak. Eskaintza ez da bateragarria beste kanpaina batzuekin eta 2017/08/31ra arte da balioduna. Informazio gehiago jasotzeko kontsultatu GaurSa.

# “Harrobiko jokalariei lehenengo taldera heltzeko aukerak eskaini gura dizkiegu”

Amorebieta futbol taldeko proiektuaren zutarrria “oinarri futbola asko lantzea” da, arduradunen esanetan



Joseba Etxeberria Amorebieta taldeko entrenatzailea eta Asier Goiria kirol zuzendaria, Urritxe futbol-zelaian eskainitako prentsurrekoan.

**> FUTBOLA** J. Derteano Amorebieta futbol taldeak hasi du aurrendenboraldia. Joseba Etxeberria entrenatzailearen eta Asier Goiria kirol zuzendariaren eskutik, sustraietara itzultzeko saiakera egingo dute aurten. Proiektu berrian oinarritzko futbolari eta gazte mailako taldeari arreta berezia

jarriko dietela azaldu du Goiriak. “Proiektuaren oinarria harrobia asko lantzea da. Etxeko jokalariei lehenengo taldera heltzeko aukerak eskaini gura dizkiegu. Sasoi batean bazituzten aukerak, baina apurtxo bat galduta egon da hori. Orain urte batzuetatik hona, edo ez da jokalaririk irteten, edo irteten

direnak beste talde batzuetara joaten dira. Egoera horri buelta eman gura diogu”.

Gazteen taldeak maila nazionalan jokatzeko du; hau da, estatuko onenen artean lehiatzen dabil. “Lehenengo talderako pausoa eman ahal izateko maila garrantzitsuan daude”, uste du Goiriak. Beraz, lehengaia bada-

go. Jokalariengan konfiantza eta motibazioa eragitea da hurrengo urratsa, talde nagusira heldu daitezkeela sentiaraztea. “Bide horretan, urtean zehar jokalariei lehenengo taldeagaz entrenatzeko aukerak eskainiko dizkiegu seguruenik”. Esaterako, gazteen taldeko Ibai Ereño erdilariak talde nagusiagaz ha-

siko du aurrendenboraldia, eta baliteke atezain bati ere aukera eskaintzea. Etxeberria entrenatzaileak ere gertutik jarraituko du gazteen garapena. “Informazioa jasotzea eta jokalarien garapena jakitea inportantea da. Gazte-gaztetatik eurekin lan eginez eta momentu zehatzetan konfiantza eskainiz, bide hori landu gura dugu”, adierazi du entrenatzaile elgoibartarrak.

22 jokalarigaz hasi dituzte entrenamenduak, baina taldea ez dago itxita. “Mugimendu gehiago egongo dira”, dio Etxeberriak. Fitxaketa berriak egongo direla baieztatu dute, eta baliteke gaur egun dauden denek ez jarraitzea. Taldean zazpi zornotzar daude momentuz, eta horietako bi oraintsu batu dira: Juan Martin eta Mikel Zarrabeitia.

Taldera batu diren beste izenen artean, Bilbao Athletic-etik joandako Gorka Iturraspe abadiñarra eta Durangoko Kulturean ibilitako Jon Galarza durangarra daude.

Taldearen aurkezpena uztailaren 25ean egingo dute, 19:00etan, Santanderko Racing-en kontrako lagunarteko partidu baten bidez.

## Bazkide kanpaina

Bazkide berriak lortzeko, Amore Gurea! izeneko kanpaina abiatu dute. “Futbolarekiko ilusioa bueltatzea da helburua. Amorebieta zaleena dela sentitu dezatela gura dugu, sentimendu hori sortzea”, azaldu du Goiriak kanpainako helburuei buruz.

## Europako txapelketan brontzea lortu du Isasik

23 urtez azpiko kanporaketa proban irabazi du



Ziortza Isasi brontzezko dominagaz.

### > PISTA J.D.

Ziortza Isasi txirrindulariak brontzezko domina irabazi du egunotan Anadian (Portugal) jokatzeko ari den Europako pistako txapelketan. Martitzenean lortu zuen domina, kanporaketa proban. Lorpen itzela da 1995ean jaiotako elorriarrarentzat, Europako txapelketan parte hartzen duen lehenengo aldia dela kontuan hartuta. Emily Nelson britainiarra eta Olivija Balesite lituaniarra bakarrik izan ditu aurretik.

Aurtengoa denboraldi borobila izaten ari da Isasirentzat. Pistako lorpenez gainera, errepidean Lointek taldeak fitxatu du. Estatuan emakumeetan dagoen talderik indartsuenetakoa da.

## Oyarbide, Lekuona eta Aramendia, txapeladun



Lourdes Oyarbide eta Lierni Lekuona, Euskal Herriko txapel banagaz.

### > TXIRRINDULARITZA J.D./M.Z.

Bizkaia-Durango taldeko txirrindulariak sasoi betean daude. Espainiako Kopako lorpenaren ostean —taldekako sailkapena eta sailkapen nagusia irabazi dute Mavi Garciaz—, Euskal Herriko txapelketan ere nabarmendu dira. Lourdes Oyarbide eta Lierni Lekuona

eliteko eta 23 urtez azpiko Euskal Herriko txapeladun geratu ziren Tolosako lasterketan.

Kadete mailan Iurretako CAF Transport Engineering taldeak ere emaitza bikainak lortu ditu. Maialen Aramendiak txapelketa irabazi zuen, eta Amaia Lartitegi bigarren geratu zen.

## Ion Sarasua onenen pare fixed bizikletan

### > BIZIKLETA J.D.

Joan zen zapatuan Kantoikrit izeneko proba berezia lehiatu zuten Oñatin. Ohiko bizikletak beharrez, piñoi finkokoak erabili behar dira, fixed deiturikoak. Lagun batek gomendatuta, Ion Sarasua abadiñarrak lehenengoz parte hartu zuen horrelako proba batean, Berrizko belodromoko bizikleta batez. Estatu osotik joandako parte-hartzaileak (Madril, Gijón...) zeuden arren, onenen parean aritu zen, eta hirugarren amaitu zuen. “Bihurguneak hartzea oso gaitza da, hankekin bakarrik balaztatu daitezkeelako. Nik itzuli batzuk behar izan nituen bizikletara egiteko”, gogoratu du. Esperimentzia “asko” gustatu zaiola eta errepikatzeko asmoa duela adierazi du.



# JATETXE GIDA



## OLAJAUREGI JATETXEA

- Kurutziaga Kalea, 52 DURANGO
- **Tel.: 946 200 864**
- [www.olajauregi-jatetxea.com](http://www.olajauregi-jatetxea.com)
- Eguneko menuak, bereziak,
- taldeentzakoak eta ospakizunak.
- Egunero zabalik.



## IKUSPEGI JATETXEA

- Goiuria, 12 IURRETA
- **Tel.: 946 811 082**
- [www.ikuspegi.com](http://www.ikuspegi.com)
- Sukaldaritza tradizionala autore
- sukaldaritza ukituarekin.
- Durangaldeko ikuspegi ederrak.



## PLATERUENA Kafe Antzokia

- Landako etorbidea, 4 DURANGO
- **Tel.: 946 030 300**
- [www.plateruena.eus](http://www.plateruena.eus)
- Egunero zabalik. Menu bereziak,
- egunekoak, taldeentzakoak eta
- ospakizunak.



## KANBIO JATETXEA

- San Migel Dueda auzoa,
- AMOREBIETA-ETXANO
- **Tel.: 946 730 033**
- Aste bitarteko menua, asteburuko
- menua, menu berezia eta karta.



## KOBIKA JATETXEA

- San Ignazio, 8 DURANGO
- **Tel.: 946810 003**
- Egile sukaldaritza eta tradizionala.
- Menu bereziak eta karta.



## IBARRA

### SAGARDOTEGI-GARAGARDOTEGIA

- Ibarra auzoa, z/g · ZORNOTZA
- [www.ibarra-sagardotegi.com](http://www.ibarra-sagardotegi.com)
- **Tel.: 946 731 100**

- **20. urteurrena.** Orain garagardotegia eta sagardotegia;
- menu ezberdinak. Gure upategian egindako sagardoa.
- Astean zehar soilik erreserbentzako zabalitzen da.



## Anbotorenlagunak

Ibarra Sagardotegi-Garagardotegiaren eskutik bi pertsonentzako menua zozkatuko dugu Anbotoren Lagunen artean. Hile honetako irabazlea: **Egoitz Jaio!**

**ZORTE  
ON!**

## Inmobiliariak

**AMBOTO**  
INMOBILIARIA  
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO  
Tel.: 946 813 562

**ISD** Inmobiliaria  
del Duranguesado  
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666  
www.inmoduranguesado.com  
inmoduranguesado@gmail.com

**ETXETXO**  
G. INMOBILIARIA  
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO  
www.inmoetxetxo.com

### ETXEBITZAK ALOKAIUAN

**DURANGO.** Bat, bi eta hiru logelako etxeak alokairuan. Hilean 575€-tik hasita.

### ETXEBITZAK SALGAI

**DURANGO.** Tabirakalea. 3 logelako etxea, komuna, sukaldea, egongela, dena kanpora begira. Eta garaje itxia.

**BERRIZ.** Etxebizitza guztiz berritua, 3 logelarekin, bainugela, sukaldea balkoiarekin, egongela balkoiarekin eta despentsa. Dotorea.

**DURANGO.** Francisco Ibarra. 4 logelako etxebizitza, 2 komun, sukaldea, egongela balkoiarekin eta despentsa.

**ATXONDO.** 3 logelako etxebizitza, komuna, sukaldea, egongela, dena kanpora begira, hiru balkoi. Horrez gain, garaje itxia.

**ELORRIO.** 4 logelako etxebizitza, egongela, sukaldea balkoiarekin, komuna, eta garajea itxita.

**DURANGO.** ARTEKALE. Azken etxebizitzak, bikoak, trastelekuarekin. Prezioak 160.000€-tik hasita.

**LEKEITIO.** 3 logelako etxebizitza, komuna, sukaldea, egongela terrazarekin, garajea. Urbanizazio pribatu baten barruan, igerileku eta frontoiarekin.

**ABADIÑO.** Iturritxo. Logela bateko apartamentua, sukalde amerikarra-egongelarekin, komuna, esekitokia, ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.

**DURANGO.** ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 komun, sukalde amerikarra, egongela, garaje itxia eta terraza ikaragarria.

**ATXONDO.** Etxebizitza 2 logelarekin, komuna, despentsa, sukaldea esekitokiarekin, eta egongela.

**ZALDIBAR.** Etxebizitza, 3 logela, komuna, sukaldea, egongela balkoiarekin, guztiz berritua. Horrez gain, trastelekua.

### LURSAILAK SALGAI

**ABADIÑO.** 1.000 m2-ko lursaila salgai, bifamiliarra eraikitze baimenarekin. Zonalde egokia.

**BERRIZ.** 10.000 m2-ko lursaila. Zelai ederra sarbide oso onarekin.

**IURRETA.** 5 hektarea inguruko lursaila, Abeletxe bat egiteko aukera dago. Sarbide onarekin.

**ABADIÑO.** Bifamiliarra eraikitze lursaila, 1.000 m2. Informazio pertsonalizatua.

**AMOREBIETA. EUBA.** Txalet bifamiliar bat eraikitze lursaila, 3.000 m2 inguruko azalerarekin.

### BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

**ELORRIO.** Aldape auzoa. Baserría berriztatze, 3 hektareako lursaila. Prezioa 160.000€

**BERRIZ.** 10.000m2-ko lursaildun baserría. Kokapen ona eta ikuspegi ederak.

**BERRIZ.** Txaleta 1.200 m2-ko partzelan, Abeletxe kalean. Hegoaldera begira. 4 logela, 3 komun, sukaldea, egongela, eta garajea.

**ATXONDO.** Baserrí ikusgarria Martza auzoan, 15.000 m2-ko lursaila baserriaren inguruan. Teilatu berria. Zonalde pribilegiatua.

**BERRIZ.** Bº Murgoitio. Bifamiliar ederra salgai. 6 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 6 komun, garaje bikoitza, 12.000 m2-ko lursaila. Kokapen ezin hobea, Anbotora begira.

**MENDATA.** Lamikiz auzunea. Baserrí bifamiliarra berriztatze. Orientazio pribilegiatua, oso eguzkitsua. Prezio interesgarria.

**DURANGO.** Eraikin atxiki ederra, izkina, guztiz hornitua. Ia berria, estreinatze.

**BERRIZ.** Baserrí ederra, Murgoitio zonaldean. Egokia landa-turismorako, landetxea. Ikuspegi ezin hobek.

### ETXEBITZAK SALGAI

#### SASIKOA



• 2 logela, egongela, sukaldea jarrita, bainugela 1, ganbara. **E.E.Z : E. 195.000€.** Garaje itxia aukeran **20.000€.**

#### TABIRA KALEA



• Guztiz berriztatua. Eguzkitsua. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta balkoia. Ilogailua. Ziurtagiri energetikoa: Zain. **180.000€**

#### FRAY JUAN DE ZUMARRAGA



• 67,18 m2 erabilgarri. 3 logela, egongela, sukaldea jarrita, bainugela, balkoia eta ganbara. Etxebizitza argi askorekin. Ziurtagiri energetikoa: Zain. **160.000€**

#### KALEBARRIA



• 68 m2. 3 logela, egongela, sukaldea jarrita eta bainugela. Leihoak aldatuta eta berogailua. **E.E.Z:F. 125.000€**

#### IURRETA



• Dotorea! 55,24 m2 erabilgarri. 2 logela, egongela, sukaldea jarrita, bainugela eta balkoia. Ilogailua kaleitik bertatik. Fatxada eta teilatu berria. **115.000€** E.E.Z: zain.

#### ARAMOTZ



• 63,72 m2: 3 logela, egongela, sukaldea jarrita, despentsa, bainugela eta balkoia. Fatxada eta teilatu berria. **E.E.Z : E. 96.000€.**



### ETXEBITZAK SALGAI

#### OIZ



• 3 logela. Bainugela. Sukaldea. Egongela eta 2 terraza. Garaje itxia aukeran. **140.000€**

#### SAN FRANCISCO



• Etxebizitza altua. 3 logela. Bainugela. Sukaldea. Egongela. Terraza. Ilogailua. Eguzkitsua. Garaje itxia aukeran. **170.000€**

#### ASTARLOA (Jesuitak)



• 3 logela. 3 bainugela. Sukaldea. Egongela. Terraza. Garajea eta trastelekua aukeran. **250.000€**

#### DURANGO



• 3 logela. Bainugela. Sukaldea. Egongela. Eguzkitsua. **80.000€**

#### ASTEPE



• 3 logela. 2 bainugela. Sukaldea. Esekotokia. Despentsa. Egongela. Trastelekua. Garajea. **ORAIN 215.000€**

#### DURANGO



• Etxebizitza altua. 3 logela. Bainugela. Egongela. Berriztatua. Ilogailuarekin. Eguzkitsua. **145.000€** Neg.

**LOKALAK ETA ETXEBITZAK ALOKAIUAN. KONTSULTATU.**  
www.inmoetxetxo.com

**ALOKAIUAN  
ETA SALGAI DITUZUN  
HIGIEZINEN BERRI  
EMAN NAHI  
AL DUZU?**



**Anbotok tarte hau  
eskaintzen dizu**

**Informazio gehiagorako:**  
Tel.: 946 217 902  
publi@anboto.org



# AGENDA

ANBOTOKo agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi [agenda@anboto.org](mailto:agenda@anboto.org) helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



Uztailaren 24an, 23:00etan, Zornotzan

## Vendetta

Ixerbekoako oholzatik arituko da talde nafarra, uztailaren 24an. Besteak beste, San Ferminetan, Santurtzin edo Portugalgo Faron jo ostean etorriko zira Zornotzako jaietara. 2009an lehenengo diskotik iaz kaleratu zuten 'Brother' diskora arteko ibilbidea eskainiko dute kontzertuan.



### Antzerkia

#### :: DURANGO

UZTAILAREN 21ean

**20:00etan**, Shakti Olaizola, musika eskolako parkean.

#### :: ELORRIO

UZTAILAREN 23an

**19:00etan**, mikroantzerkia, Casa Jara jauregian.



### Musika

#### :: DURANGO

UZTAILAREN 22an

**19:30an**, Tabira musika banda, Plateruen plazan.

#### :: ELORRIO

UZTAILAREN 20an

**21:00etan**, Paulie and the wood strings, Portalekuan.

UZTAILAREN 21ean

**22:30ean**, Jorge Pardo, Lariz jauregian.

UZTAILAREN 28an

**22:30ean**, Ruper Ordorika, Tola jauregian.

UZTAILAREN 29an

**22:30ean**, Antonio Lizana, Tola jauregian.

UZTAILAREN 30ean

**19:00etan**, Khami, Tola jauregian.



### Jaiak

#### :: OTXANDIO

UZTAILAREN 21ean

**18:30ean**, bizikleta saltoen erakustaldia.

**19:00etan**, Korrika hasierako argazki eta bideoen emanaldia, Bolalekuan.

**20:00etan**, 'Hartu hitza Otxandio' galdeketa egunaren aurkezpena.

**22:30ean**, play backa plazan.

UZTAILAREN 22an

**12:00etan**, Otxandioko bandaren kalejira eta dultzaineroen kalejira.

**14:00etan**, paella txapelketa San Martinen.

**19:30ean**, Akelarre txaranga, kalerik kale.

**20:30ean**, nesken soka-dantza, herriko plazan.

**23:00etan**, Hutza + Lágrimas de sangre + Akerbeltz, herriko plazan.

UZTAILAREN 23an

**07:30ean**, Diana eta kalejira.

**08:00etan**, sokamuturra.

**13:00etan**, omenaldia bonbardaketan hildakoei.

**13:45ean**, limonada plazan, eta Araiako eta Otxandioko banden emanaldia.

**18:00etan**, ingude jasotze txapelketa.

**19:00etan**, aizkolari apustua Saul Velasco eta Luis Polancoren artean.

**20:30ean**, erromeria Gauargi taldeagaz.

**22:00etan**, bonbardaketari buruzko dokumentalaren aurkezpena, Andikonan.

**22:30ean**, Gauargi taldearen emanaldia.

**00:00etan**, Agur Santamarina.

#### :: ZORNOTZA

UZTAILAREN 21ean

**13:00etan**, kuadrillen kalejira, Kalbario plazatik.

**15:00etan**, bertso bazkaria Ander Elortegi eta Miren Amurizagaz, Ixerbekoan.

**17:00etan**, aldi bereko 50 xake partida, Zelaieta parkean.

**18:00etan**, Txaranga elektrotxaranga, Luis Urrengoetxea kalean. Bizikleta eguna, Zubiondo parkean.

**22:00etan**, danborrada.

**23:00etan**, Setenta y uno + Calum, Zubiondo plazan.

**00:00etan**, Garilak 26ren erromeria, Ixerbekoan.

UZTAILAREN 22an

**Goizean**, marmitako lehiaketa, Zubiondo plazan.

**09:00etan**, usakume tiroketa, Boroa poligonoan.

**11:00etan**, umeentzako bolo txapelketa, Gure Kirolak bolatokian.

**17:00etan**, xake txapelketa, Urbano Larruzea kalean.

**18:00etan**, Zornotzako III. master kirola txapelketaren finalak, Amorebieta IV frontoian.

**21:00etan**, Karmenetako VII. bolo txapelketa, Gure Kirolak bolatokian.

**22:00etan**, Belatz + Txapel-punk + Itziarren Semeak, Ixerbekoan.

**23:00etan**, London Orkestra berbena, Zubiondo plazan.

UZTAILAREN 23an

**09:00etan**, usakume tiroketa, Boroa poligonoan.

**11:00etan**, ontzi modelismo erakustaldia, Jauregibarrian. Euskal Herriko nesken gomazko paleta zirkuitua, Amorebieta IV frontoian.

**17:00etan**, Euskal Herriko nesken gomazko paleta zirkuitua, Amorebieta IV frontoian.

**18:00etan**, Karmenetako esku pilota txapelketako federatuen finala. Amorebieta IV frontoian.

**21:30ean**, Oihan Vega, Nafarroa plazan.

**22:00etan**, Puro Relajo, Zubiondo parkean.

UZTAILAREN 24an

**18:00etan**, Kuadrillen arteko piragua jaitziera, Ibaizabal errekan. Pala partiduak, Amorebieta IV frontoian.

**21:00etan**, txistularien XVIII. kontzertua. Artista gonbidatua: Niko Etxart. Zelaieta parkean.

**23:00etan**, Vendetta, Ixerbekoan. La Orquesta Mondragon, Zubiondo parkean.



### Erakusketa

#### :: GARAI

UZTAILAREN 15etik ABUZTUAREN 7ra arte

Enrique Ojembarrenaren 'Garai-Ciudad del Cabo' Eleizabarrin.



### ZINEMA

:: **ABADIÑO**  
TRAÑA PLAZAN

**La La Land**

. eguaztena 26: 22:00

:: **BERRIZ**  
OLAKUETA PLAZAN

**Monster house**

. barikua 21: 18:30

**Tarde para la ira**

. barikua 21: 21:30

:: **DURANGO**  
ZUGAZA

**Una noche fuera de control**

. barikua 21: 19:30-22:00  
. zapatua 22: 17:00-19:30-22:30  
. domeka 23: 16:30-19:00-21:30  
. astelehena 24: 18:30-21:00  
. martitzena 25: 20:00  
. eguaztena 26: 20:00

**Dunkerque**

. barikua 21: 19:30-22:00  
. zapatua 22: 17:00-19:30-22:30  
. domeka 23: 16:30-19:00-21:30  
. astelehena 24: 18:30-21:00  
. martitzena 25: 20:00  
. eguaztena 26: 20:00

**A 47 metros**

. barikua 21: 22:00  
. zapatua 22: 17:00-22:30  
. domeka 23: 19:00-21:30  
. astelehena 24: 21:00  
. martitzena 25: 20:00  
. eguaztena 26: 20:00

**Cars 3**

. barikua 21: 19:30  
. zapatua 22: 17:00  
. domeka 23: 16:30  
. astelehena 24: 18:30

## UZTAILEKO AGENDA



24

### SANTIXAU JAIK OROZKETAN

Jaien hasiera. Txapligoak.

25

### SANTIXAU EGUNA OROZKETAN

12:00 Meza.

Ondoren, Mikel Deuna Dantza Taldea.

Paella txapelketa, bakoitzak bere tresna eta osagaiak ekarri behar ditu.

14:30 Paellaren aurkezpena.

16:30-19:30 Umeentzako jolasak.

17:30 Briska txapelketa.

18:30 Igel Txapelketa.

Trikitiariet arratsaldea alaituko dute.

Jaiei amaiera emateko errifaren zozketa eta txapligoak.

### IBARRETXE KULTUR ETXEKO UDAKO ORDUTEGIA

Ekainaren 23tik irailaren 8ra Ibarretxe Kultur Etxea goizez irekiko da 8:30etik 13:30era.

**> BOTIKAK****BARIKUA, 21** · 09:00-09:00**Gaztelumendi** J.A. Abasolo 2 - DURANGO**Sarasketa, Diego** Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA**ZAPATUA, 22** · 09:00-09:00**Navarro** Artekalea 6 - DURANGO**Sarasketa, Diego** Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

09:00-13:30

**De Diego** Intxaurren 22. - DURANGO**Campillo** Montevideo etorb. 24 - DURANGO**Bazan Diaz** Urbarri 5 - DURANGO**Jaio-Olabarrieta** Errekakale 6 - ELORRIO**Bartolome** Gabiola 2 - BERRIZ**Melero, Rosa Mari** San Pedro 31 - ZORNOTZA**DOMEKA, 23** · 09:00-09:00**Campillo** Montevideo etorb. 24 - DURANGO**Sarasketa, Diego** Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA**ASTELEHENA, 24** · 09:00-09:00**Sagastizabal** Askatasun etorb. 19 - DURANGO**Iruarrizaga, Karmele** San Miguel 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

**Sarasketa, Diego** Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA**MARTITZENA, 25** · 09:00-09:00**De Diego** Intxaurren 22. - DURANGO**Iruarrizaga, Karmele** San Miguel 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

**Sarasketa, Diego** Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA**EGUAZTENA, 26** · 09:00-09:00**Navarro** Artekalea 6 - DURANGO**Iruarrizaga, Karmele** San Miguel 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

**Sarasketa, Diego** Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA**EGUENA, 27** · 09:00-09:00**Gaztelumendi** J.A. Abasolo 2 - DURANGO**Iruarrizaga, Karmele** San Miguel 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

**Sarasketa, Diego** Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA**> ZORION AGURRAK**✉ zorionak@anboto.org  
eguztaren 14.00ak arteko epea

> Uztailearen 30ean 3 eta 63 urte beteko dabez **Oihanek** eta aitiittak. Zorionak eta muxu potolo bat etxekoan partez.



> Zorionak, bikote! Ondo pasa ezazue zuen 25. urteurreneko ospakizunean!



> Zorionak, **Beñat**, uztailearen 11n 10 urte bete zenituen. Zorionak familia guztiaren partez. Musu handi bat!



> Zorionak, **Maier Iza Areitio**. Mosu handi bat laguntxo danen eta familia guztiaren partez! Ondo pasatu txokolatadan!



> Zorionak, **Estrella**, etxeko guztien partez. Asko maite zaitugu.



> Zorionak, polit hori! Egun ona izan zure urtegunien. Mosu potolo bat danon partez.



> Zorionak, **Nikole**! Segi orain arte bezain alai eta sorgintxo izaten! Mosu handi-handi bat etxeko danon partez, batez ere, aitate-amama, aitatxo-amatxo ta Elenen partez!



> Zorionak, printzesa! Uztailearen 22an 9 urte. Muxote potolo bat etxekuen partetik. Ondo pasa, preziosa!



Ermodo, 11 · DURANGO  
Tel.: 946 201 663  
gozatudurango@gmail.com  
f Gozatu Gozotegia

Zorionak, **Urko (684. alea)**! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.

**MIREN RODRIGUEZ****Minbiziaren aurkako dietak: beste mito bat**

“Dieta miragarriek” konponbide azkar eta erraza agintzen dute gizentasunerako. Baina promesa hori ez da batere gomendagarria, osasun arazo larriak eragiten baititu, eta argaltzeko eraginkortasuna ere zalantzazkoa izaten da, yoyo efektua dela eta. Argaldu nahi izanez gero, astiro egin behar da, otordu osasungarriak eginez, gutxiago janez eta ariketa fisikoa eginez. Antzekoa esan liteke “minbiziaren aurkako” dietei buruz. Minbizia duten pazienteen biziraupen zifrak asko hobetu dira, ia erdiek lortzen dute gaixotasuna gaintitzea, horixe diote Onkologia Medikuko Espainiako Elkarteak (SEOM) emandako datuek. Hala ere, munduan pertsona gehien hiltzen duen gaitzetako bat da, eta Espainiako Estatuan bertan 250.000 lagun gaixotzen dira urtero. Ez da harriztekoa, hortaz, minbiziaren dutenek kosta ahala kosta bilatzea gaixotasunari aurre egiteko moduak. Eta bilaketa horretan, gerta daiteke “minbiziaren aurkako dietak” aurkitzea eta horiekin fidatzea.

**Zer eta nolakoak dira?**

“Minbiziaren aurkako dietak” esaten dute elikagai batzuk edo elikagai multzo batzuk gai direla minbizi mota guztiak saihesteko, eta are sendatzeko ere. Planteamendu hori oso arriskutsua da, zeren pentsaraz baitezake ustezko dieta horiek ordezkatu egin ditzaketela ohiko tratamenduak (kirurgia, kimioterapia eta erradioterapia). Horieta batusk beste pauso bat ere ematen dute, eta esaten dute emozioek zerikusia dutela minbiziaren agertzearekin. Baina ez dago “minbiziaren aurkako” dietarik.

**Anbotoren lagunak**

Hurrengo zozketa irailaren 1ean

AURREKO ASTEKO ZOKKETAREN IRABAZLEA HONTZA EXTREM abentura parkerako sarrerak

ESTIBALITZ SOLANA SAGASETA

**ZORIONAK!**

Tel.: 946 816 558 · www.anboto.org · lagunak@anboto.org

# “Nire ibilbide profesionalaren lehenengo lerroan joango da errekonozimendu hau”

Omenaldia egin diote Iurretan ia 30 urte pediatra izan duten Txema Arginzonizi; abuztuan joango da

**> AKUILUA** Aitziber Basauri  
Maiztegi herri eskolako Guraso Elkarteak bultzatuta, omenaldi beroa egin diote ia 30 urtean Iurretan pediatra izan dutenari. Ezkutuan prestatutako ekitaldiak udal ordezkariak, kultur eta kirol elkarteak, anbulatorioko lankideak, familiakoak, eta, nola ez, guraso eta umeak batu zituen. Sorpresaz eta hunkituta hartu du aitortza Arginzonizek. Argi du etorriko denak bikain egingo duela lana.

## Omenaldi beroa egin dizute herrian!

Ez nuen inola ere espero. Hunkigarria izan da benetan; berbarik barik utzi naute. Merzimidu honetarako ezer berezirik egin dudan kontzientziarik ez dut! Curriculumaren, ibilbide profesionalaren lehen lerroan, gailurrean, joango da errekonozimendu hau. Umeekiko medikuntza errespetuzkoena egiten saiatu naiz, besterik ez. **Ia 30 urte Iurretan. Ibilbide luzea...** Bai, eta oso gustura egon naiz. Esan behar dut nik ere oso estimutan ditudala iurretarrak. Horren adierazle da 30 urte egon izana; lana ahalik eta ondoen egiten lagundu didate. Asko ikasi dut. Hasierak akaso ez ziren oso errazak izango, neurri batean

nire esperientzia faltagatik, baina, hortik aurrera, gurasoekin lan egiteko aukerak bikainak izan dira. Pozgarria da hori. Hala ere, inoiz txarto artatua sentitu denari barkamena eskatu gura nioke. Behin

pentsatu dut joatea: Durangon anbulatorio berria egin zenean, leihogatik. 20 urte egin ditut leihorik barik kontsultan. Baina, ez naiz damu gelditu izanaz! Hori bai, leihoak eskatu nahi ditut lankideentzat.

## Aldatu al dira umeak eta gurasoak?

Funtsean, ez. Umeek jokaera berdintsuak dituzte beti, toki guztietan, euren espontaneotasun eta bel-durrekin; gurasoek ere bai, euren ahalegin, poz eta larritasunekin. Baina egungo gurasoek hobeto ulertzen dute gaixotasun biriko baten bilakaera, jarraipen lasaiagoa egiten diote. Uler-tzen dute umeengan gaitz asko berririk osatzeko zerekin, eboluzio naturalez. Hau da, ez dutela tratamendurik behar. Lehen oso arraroa zen errezetarik barik joatea.

## Bilakaera bat eman da?

Bai, gizartearen arrakasta izan da. Aurrera egingo badugu, gurasoekin osatutako tandem martxan jarrita izango da. Oraingo pediatria umeekin errespetuzkoagoa da.

## Erantzun ohikoa da umeak sintoma birikoak dituela...

Gogaikarriak iruditzen arren,

horrela da. Umeen gaixotasun txiki ia gehienak birusak eraginak dira. Horren aurrean zerbaitek balio badu, bilakera ikustea da. Gurasoen lan horrek ez du preziorik.

## Pasarte bitxirik baduzu?

Unean barrea eragindako hainbat, gero ahaztu ditudanak. Gogoan dut erizainari eta bioi askotan sukualdea non genuen galdetzen zigun umea, edo Olentzerori bizikleta eta patatak eskatu zizkiona. Beste batek etxean manifestazioa egiten zuen goizetan: “Ikastola ez, Txema bai!”

## Saharan ere egona zara.

Bai. Lau urtez joan nintzen. Asko ikusi eta ikasi nuen, tartean, zein zaila den gauzatzea ‘arrantzan erakutsi, arraina eman barrik’ dioen maxima ezaguna. Hondurasen ere egon nintzen.

## Pediatrak euskaraz jakitea beharrezkoa da?

Pediatra on bat izatea ala euskaraz jakitea da hobe? Ez naiz eztabaida horretan sartuko. Biak dira garrantzitsuak eta beharrezkoak. Pediatra euskalduna behar da, eta horretan lan egin.

## Irratian osasun gaien inguruan jardundakoa ere bazara.

Halako bertigoa ematen zidan zuzenean aritzeak, baina esperientzia interesgarria izan zen.

## ‘Bularretik mintzora’ ekimenaren barruan dago Iurretan.

Bai. 0-6 urteko umeengan irakurzaletasuna sustatu gura du: sehaska-kantak abestuz, ipuinak kontatuz... Horrek garapen emozionalean eragingo du.

## LAUHORTZA

**ARITZ MALDONADO ZABALA**

Behargina



## Fikzioak (II)

Ez dut oroitzen noiz bilakatu ginen maitale. Udan? Atzo izan zitekeen, edo bihar berdin; Ohion (AEB) izan zitekeen, edo Bardeetan berdin. Ohe gainean, biluzik afaltzen hasi ohi ziren amodiozko gau (b)eroak. Karramarroarena, barraskiloarena, eta untxiarena egiten erakutsi genion elkarri.

Barreak, atariko ikutuak, xuxurlak, eta azkenik, etxeko txoko guztiak margozten zituzten leherketak.

Gaurko gau epelean, ilargi urdina begira dugu.

Periferian gaude, zirkuluan eserita, suaren bueltan. Zenbat gara? Lau, bat, hiru, bost, zazpi... berdin dio. Tortxa bana iziotu, eta abesteari ekin diogu. “Ez nau izutzen negu hurbilak, uda betezko beroan...”. Harrigarria da kantatzeak duen indarra, zenbat batzen gaituen. Ozen eta soinu bakarrean gabiltza, eta beti hunkitu nau horrek.

Taldeari begiratzen diot, eta gutako bakoitzak Picassoren artelan bat dirudi. “Ez nau iluntzen baratzeetan azken loreak biltzeak...”. Nire gorputzak ingurukoena igurtzen du, eta alderantziz. “...muga guztien arrazoi bila arnas gabe ibiltzeak...”. Norbanakoaren ahotza, albokoarenarekin batzen da; zuzenean doa eztarrietatik bihotzetara. “...arratsaldeko argi betera zentzu denak umiltzeak...”. Garrak lakoak gara, gorputzik gabe, arima baino ez. “...amets beteko loa baitakar behin betirako hiltzeak”.

Zilarra ageri zaio ilargiari. Parean dut bera, eta ilargiari begiratzeak duen moduagatik, badakit: bere amets guztiak egiazko bilakatuko dira.



merkataritza gida sarean

[anboto.org/gida](http://anboto.org/gida)

**Ezagutu eta erabili Durangaldeko merkataritza gida euskaraz eta sarean!**



Merkataritza gidan agertzeko deitu: 946 217 902